

LEA-ARTIBAI ETA GOI NERBIOIKO PLANGINTZA ESTRATEGIKOEN ARTEKO KONPARAKETA

Jabi Aranguena

Sarrera

Lehen zatia: EGOERAREN DESKRIBAPENA

1.-Datu demolinguistikoak

- 1.1.-Demografia eta biztanleen banaketa udalerrian
- 1.2.-Populazio aldaketak: migrazioak
- 1.3.-Ezagutza datuak
- 1.4.-erabilera datuak

2.- Hezkuntza ereduak

3.-Datu sozio-ekonomikoak

- 3.1.-Langabezia eta biztanleen jarduna
- 3.2.- Udaletako aurrekontuak

4.-Datu politikoak

- 4.1.- Azken hauteskundeetako emaitzak: Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen emaitzak (2001-5-13) eta udalen osaketa
- 4.2.-Herritarren arteko jarrerak. (giro subjektiboa)
- 4.3.-Gizartean eragina duten taldeentzat, euskeraren inportantzia

5.- Herritarrak

- 5.1.-Gazteen ohiturak: aisialdi antolatua eta ez antolatua.
- 5.2.-Herriko eragile nagusiak

6.- Konparazio orokorra

Bigarren zatia: PLANGINTZA ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA

1.-Lea-Artibai EUSKERARI: LEA-ARTIBAICO PLAN ESTRATEGIKOA

1.1.-Alderdi metodologikoak

1.1.1.-Kontseiluaren Plan Estrategikoak: oinarri teorikoak

1.1.2.-Lehentasunak

1.1.3.-Helburuak

1.1.4.-Denboralizazioa

1.1.5.-jarraipena eta ebaluazioa

1.2.-Proiektuaren baliabideak

1.2.1.-Proiektuaren babesleak

1.2.2.-Baliabide materialak

1.2.3.-Baliabide pertsonalak

1.2.3.1-Lan Taldeen eskema, funtzioak eta dinamika

1.2.3.2.-Kudeaketako arduradunak

1.3.-Proiektuaren abiarazleak

1.4.-Euskalgintzaren funtzionamendua eskualdean

1.5.-Oztopo burokratikoak

1.6.-Gizarte eragileak

1.7.-Aholkularitza

1.8.-Gizarte eragileak lortzeko estrategia

2.- EUSKERA BIZIBERRITZEKO PLANAREN APLIKAZIOA GOI NERBIOI ESKUALDEAN

2.1.-Alderdi metodologikoak

2.1.1.-Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia: oinarri teorikoak

2.1.2.-Lehentasunak

2.1.3.-Helburuak

2.1.4.-Denboralizazioa

2.1.5.-jarraipena eta ebaluazioa

2.2.-Proiektuaren baliabideak

2.2.1.-Proiektuaren babesleak

2.2.2.-Baliabide materialak

2.2.3.-Baliabide pertsonalak

2.3.-Proiektuaren abiarazleak

2.4.-Euskalgintzaren funtzionamendua

2.5.-Gizarte eragileak

2.6.-Aholkularitza

2.7.-Gizarte eragileekin elkarlana

Hirugarren zatia: PLANGINTZEN AZTERKETA ETA KONPARAZIOAK

1.-PLANGINTZEN APLIKAZIOKO MAILA SISTEMIKOA

- 1.1.-Lea-Artibaiko Plan Estrategikoaren maila sistemikoa
- 1.2.-Goi Nerbioiko planaren maila sistemikoa

2.-ERKAKETARAKO MARKO DESKRIPTIBOA

- 2.1.-Zer nahi da?
- 2.2.- Non bilatu hizkuntza aldaketa?
- 2.3.-Zertarako bilatu hizkuntza aldaketa?
- 2.4.-Nork egin behar du aldaketa hori?
 - 2.4.1.-Plangintzaren beste sustatzaile batzuk: arduradun politikoak
- 2.5.-Zelan lortu hizkuntza normalkuntza premiak erakunde barruan txertatzea?
 - 2.5.1-Norentzat diseinatzen da plangintza?
 - 2.5.2-Zelan jakinarazi: komunikazioa
 - 2.5.3- Ze emaitza lortu nahi da?

Laugarren zatia: PLANGINTZEN APLIKAZIOA

SARRERA

Azkenaldian, euskeraren munduan ugari agertzen ari dira erabilera sustatzeko plangintza estrategikoak eta metodoak. Honen aurrean beti sortzen den galdera da zertarako horrenbeste bide ezberdin, helburua berdina bada; zein dago zuzen, ala guztiak balio dute errealitate guztietan aplikatzeko? Horrela ez bada, ze baldintza eskatzen du metodologia bakoitzak aplikagarria izateko.

Lanaren helburuak hurrengoak dira:

- ❖ planteamendu sistemikoaren aldetik, momentu honetan aplikazioan ari diren metodologia bi aztertzea.
- ❖ diziplinarteko ikuspegitik, iradokizunak egitea eta ideiak botatzea planen funtzionamendu eta emaitzak onak izan daitezen.

Aipatu metodologiak, hurrengoak dira: alde batetik Kontseiluak Bizkaiko Lea-Artibai eskualdean garatu asmo duen Plan Estrategikoa (Lea-Artibai EUSKERARI deitua) eta bestetik, Bizkaiko Goi-Nerbioiko zenbait udalerritan, euskera zerbitzuek, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzak diseinatutako Euskera Biziberritzeko Plan Nagusiaren (aurrerantzean EBPB) aplikazioaren arteko konparazioa egin.

Ingurune bietako hizkuntza errealitateak, oso ezberdinak dira; bakoitzaren baliabideak eta jarraitutako metodologiak desberdinak; momentu batzuetan konpara ezinak direla dirudi. Dena den, hain egoera eta hasiera puntu ezberdinak izanda, Euskal Herrian ematen den aniztasunaren adibide ere badira.

Bigarren hausnarketa, metodologikoa da: zein da bide egokiagoa helburu bera lortzeko? (euskeraren erabilera sustatzea maila indibidual eta sozialean). Kontseiluaren metodologiak, proiektu zabal bat adierazten du, herritarren partaidetza ezinbestekoa duena, gizarte esparru guztietan eragin nahi duena; EBPBren aplikazioan oster, alderdi instituzionalak inportantzia handia hartzen du; instituzioetatik gidatzen da euskalduntze prozesua. Biak izan ahal dira baliagarriak? Edo bakoitzak baldintza jakin batzuetan lan egiteko balio du bakarrik?.

Ondoren datorren lan hau, 3 zati nagusitan banatzen da:

- ❖ Lehenengo zatian, egitasmoen aplikazioko populazioaren ezaugarriak eta inguruko berezitasunak aztertzen dira.
- ❖ Bigarren zatian, gaur egun martxan dauden plangintza mota ezberdin biren ezaugarriak eta euren aplikazioan ikusten diren zenbait puntu aztertzen dira. Bigarren zati honek, era berean, ^{ooo} zati bi ditu, bata EBPNren aplikazioari zuzendutakoa Goi Nerbioi eskualdean eta bestea Lea-Artibai eskualdean, Kontseiluaren gidaritzapean, aurrera daramaten Plan Estrategikoa.
- ❖ Azken zatian, plan bien aplikazioaren azterketa deskriptiboa egiten da ikuspegi sistemikotik.

Lehen zatia: EGOERAREN DESKRIBAPENA

1.-Datu demolinguistikoak

- 1.1.-Demografia eta biztanleen banaketa udalerrian
- 1.2.-Populazio aldaketak: migrazioak
- 1.3.-Ezagutza datuak
- 1.4.-erabilera datuak

2.- Hezkuntza ereduak

3.-Datu sozio-ekonomikoak

- 3.1.-Langabezia eta biztanleen jarduna
- 3.2.- Udaletako aurrekontuak

4.-Datu politikoak

- 4.1.- Azken hauteskundeetako emaitzak: Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen emaitzak (2001-5-13) eta udalen osaketa
- 4.2.-Herritarren arteko jarrerak. (giro subjektiboa)
- 4.3.-Gizartean eragina duten taldeentzat, euskeraren inportantzia

5.- Herritarrak

- 5.1.-Gazteen ohiturak: aisialdi antolatua eta ez antolatua.
- 5.2.-Herriko eragile nagusiak

6.- Konparazio orokorra

1.- Datu demolinguistikoak

1.1.-Demografia eta biztanleen banaketa udalerrian

Biztanle aldetik, Goi-nerbioiko herriak, ez dira handiegia. Bizkaiko herrien ezaugarria da oso handiak edo oso txikiak izatea eta alde horretatik, ohikoena Bizkaian, 3.000 biztanletik beherako herriak aurkitzea da. Kasu hau da Goi Nerbioiko herriena.

Goi Nerbioiko herriak. 1996ko datuak.


Herria	Biztanleak	Biztanle dentsitatea Km ² ko	Ehunekoetan eta adinaren arabera		
			0-19	20-64	>65
Orozko	1.888	18.4	%14.8	%63.7	%21.3
Ugao	4.173	802.5	%21.3	%63.5	%15.1
Zeberio	899	19.1	%13.3	%57.8	%28.8

Jatorria: www.eustat.es

Arreta deitzen duena ordea, km²ko biztanle kopurua da: historikoki bai Zeberio eta batez ere Orozko, mendi herriak dira, Gorbeiako maldetan kokatuta daude eta lurreko aberastasunetatik (nekazaritza eta abeltzaintza) bizi izan dira; ondorioz, lur asko dituzte. Ugao oster, Gaztelatik Bilborako bidean kokatuta dago, eta bere sortze arrazoia, bide horretako aukerak aprobetxatzea izan zen, beraz, hasieratik merkatal bokazioko herria izan da.

Adinen banaketan arreta jarri ezker, ikusten dugu, gazteen portzentajeak, handiagoak direla gune industrialean; duda barik azken hamarkadetan baserri mundua ezagutzen ari den dekadentziaren ispilu.

Ondorioz, azpiko mapetan ikusten den fenomeno gertatzen da Orozko eta Zeberion:




Zeberioko bizilagunen distribuzio mapa



400 biztanletik
gorako gunea



4-8 etxeako auzoak
Biztanle kopuru
urriko gunek



Orozkoeko bizilagunen distribuzio mapa



400 biztanletik
gorako gunea



4-8 etxeako auzoak
Biztanle kopuru
urriko gunek

Jendea oso sakabanatuta bizi da, biek "auzo" izena hartzen duten gune asko dute (50etik 80ra bitartean). Berez, ez dago "Zeberio" edo "Orozko" deitutako leku jakinik (historia liburuetan uste denez, gaur desagertuta leudekeen baserriren batzuen izenak izan ahal ziren). baizik eta bailara berdinean kokatutako etxaldeak.

Etxalde hauek, 3-5 ethez osatuta daude gehienetan eta bertako biztanleak historikoki ingurukoekin erlazionatzen ziren: Auzo bakoitza eliza bati zegokion eta auzo horretako pertsonen harremanak, eliza horretako herritarrekin izaten ziren edo eskola berdinerara zihoazen umeekin.

Guzti honek, fenomeno bitxiak dakartza:

- Ø Orozko eta Zeberio, herri txikiak izan arren, bertako biztanleak ez dira beti ezagutzen (kontuan izan lurraldeen tamaina); ez dituzte askotan ohitura berdinak eta euskeraren errealitatea udalerri barruan ere aldatu egiten da.
- Ø Udalerri bakoitzean, auzoen kokapen fisikoaren arabera, erreferentziako herri handiago bat edo beste izan da . Horrela, Zeberioko herritar batzuek, Ugao, Basauri eta Bilbo alderako joera handiagoa izan dute eta beste batzuk oster, Igorre eta Arratiara jo izan dute lan egin eta harremanak izateko. Gauza bera Orozkon, batzuek Bilbo eta Laudioarekin harremanak zituzten bitartean beste batzuk, Gasteiz izan dute. Gaur egun ere, zenbait auzoetako auzotarrek ez dute harremanik herriarekin; jende asko eta asko, botoa ematera joaten da bakarrik herrira.
- Ø Lehenago ere bai baina batez ere azken hamarkadetan, herri bakoitzean, auzo bik hartu dute inportantzia: Zeberioko kasuan Zubialde auzoa eta Orozkon Zubiaur auzoa. Auzo hauetan kontzentratzen dira herriko zerbitzuak (medikua, botika, meza zerbitzua, bankua, udala, eskola, dendak eta abar)

Ugaon oster, justu kontrako fenomeno gertatzen da. Lehen esan dugun bezala, Ugao, Bilbotik-Gaztelarako errepideak utzi ahal zituen onurak aprobetxatzeko zenbait zeberioztarrek sortutako herria da, nukleo argi eta jakin bat du (Ugao-Miraballes) eta lau auzo txiki.



4-8 etxeko auzoak
Biztanle kopuru
urriko guneak



3.000 biztanletik
gorako gunea

Biztanleen banaketa mapa Ugao-Miraballesen

Biztanleak eta zerbitzu guztiak, Ugao-Miraballes deitutako erdiko gune horretan kontzentratzen dira hor kontzentratzen dira.

Markio izeneko auzoa, enklabea da eta bertako jendearen joera naturala, Arrigorriaga izan da beti.

Lea-Artibai. 1996ko datuak.

Herria	bizilag	Biztanle dentsitatea Km ² ko	Ehunekoetan eta adinaren arabera		
			0-19	20-64	>65
Amoroto	374	29	%17.9	%60.7	%21.3
Aulesti	658	26	%16.2	%60.6	%23.1
Berriatu	978	54.3	%20.2	%61.6	%18
Etxebarria	788	43.5	%22.9	%59.1	%17.8
Gizaburuaga	136	21.6	%12.5	%58.8	%28.6
Ipazter	624	27.6	%14.5	%56.5	%28.8
Lekeitio	7.430	3.910.5	%18.9	%62.9	%18
Markina	4.713	74.1	%20.4	%29.6	%19.8
Mendexa	338	46.9	%13	%63	%24
Munitibar	397	16.5	%13.3	%60	%25.9
Ondarroa	10.247	2.846.4	%20.6	%63.9	%15.4

Jatorria: www.eustat.es

Lea-Artibaiko irakurketa, antzekoa da: mendeetan nekazaritzatik bizi izan diren herriak, biztanlez txikienak dira, eta ostera arrantza izan dutenak lanbide nagusia (Ondarroa eta Lekeitio), eskualdeko herririk handienak dira eta eskualdea osatzen duten bailara bien buru (Lea eta Artibai)

Markinaren kasua, berezia da, beti nekazal herria izanda, industrializaziorik handiena ezagutu zuen herria izan da eskualde osoan

Gainontzeko herrien gainbehera, etengabea da azken hamarkadetan (nahiz eta ematen duen Berriatu errekuaritzen ari dela). Herririk txikienak, biztanleak galtzen ari dira. Galera hau handiagoa da Lea Ibarraren kasuan eta are larriagoa zenbat eta herririk handienetatik gertuago egon (kasu honetan Lekeitio).

Herri txikien galera argi ikusten da 20 urtetik beherako populazio portzentajeak aztertuta: Herririk txikienak eta ondorioz Lean kokatutakoak dira pertsona gazteen portzentajerik txikienak dituztenak, eta era berean pertsona zaharren portzentajerik altuenak dituztenak.

Biztanleen banaketa gune fisikoan aztertzen badugu, ikusi ahal da goi Nerbioiko egoerarekin, ezberdintasun handiak dituela:


- Ø Herririk gehienetan (Ondarroa eta Lekeitio izan ezik), nukleo jakin bat dago, normalean herriari izena ematen diona eta inguruetan ondo definitutako eta 8-20 etkez osatutako auzoak (bakoitzean 4-8 auzo).
- Ø Auzo hauek, gehienetan, mendietan kokatzen dira eta nukleoa erdian, bide nagusiaren ondoan eta erreken alboan; ondorioz, beti egon da komunikazio handia auzo eta nukleoaren artean eta auzoen artean ere, eta

jakina, guztiak ezagutzen dira eta harremanak dituzte normalean. Hemen salbuespena, Markina izan da, Markinak, XX. mendean, inguruko herri txiki asko hartu zituen (Barinaga, Bolibar, Larruskain...) hala ere uste dut, erreferentzia puntua dela horko biztanleentzat.

- Ø Lekeitio eta Ondarroa, itsasora begira bizi izan diren herriak dira; ez dute lurrik eta ondorioz, ia auzorik ere.
- Ø Guztietan, zerbitzuak (medikua, eskola, bankua, tabernak...) udalerriaren nukleoa osatzen duen zati horretan kokatzen dira.




1000 biztanletik gorako gunek



200-1.000 biztanle arteko gunek



200 biztanletik beherako gunean: 8-20 etxe bizitza: auzoa



1.2.-populazio aldaketak: migrazioak

Ondorengo tauletan ikusten da azken urteotan ezagutzen ari garen fenomenoak eta euskeraren etorkizunean garrantzia izango duena: migrazioa. Azterketa soziolinguistikoa egin ahal izateko ezinbestekoa da gaur egun etorkinik dagoen ala ez ikustea, nondik datozen eta horren ondoren, euskeraren erabilera euren artean bultzatzeko ze estrategia jarraituko den pentsatzea.

Goi Nerbioiko herriak. 1999ko datuak.

Herria	Beste lurralde batzuetatik egon den migrazioa			Udalerri barruko migrazioa	EAEkiko migrazioa		
	saldoa	etorritakoak	joandakoak		saldoa	etorritakoak	joandakoak
Orozko	0	3	3	96	57	109	52
Ugao	-20	15	35	117	-20	58	78
Zeberio	0	-	-	26	26	49	23

Jatorria: www.eustat.es

Hiru motatako migrazioa aztertzen da: udalerri barrukoa, EAE barrukoa eta gainontzeko lurraldeetara.

Ikusten da migraziorik inportanteena, herri barruan ematen dela: elkarrekin bizi izaten hasten den jendea edota beste etxe batera joaten dena. Bereziki garrantzitsua da migrazio mota hau Orozkon. Pentsatu ahal da, bere azalpena, politikan dagoela: Orozkoko udalak (eta neurri txikiagoan Zeberiokoak ere) biztanleak irabazi nahian, etxe-bizitza politika gogorra jarri dute martxan. Helburua, 3.200 biztanlera heltzea da Orozkoren kasuan eta Zeberiorenean, 1.000tik gora lasai ibiltzea. Ondorioz, auzoetako pertsona asko joan da bizi izatera herrien erdialdeko auzoetan egin dituzten etxe berrietan.

EAEko migrazioa aztertzeke orduan, gauza bera; herririk txikienetara jendea bizi izatera dator: pertsona hauek, inguruetako herri industrializatutatik datoz (Laudio, Basauri, Bilbo eta Ugao bertatik) eta arrazoiak hurrengoak dira: komunikazio bideen hobetzea, lasaitasuna eta prezio merkeak.

Bizi izatera datozenak, gehien bat bikote gazteak dira ume txikiekin.

EAEtik kanporako migrazioak, ez dauka datu esanguratsurik Orozko eta Zeberion, eta Ugaora datozenak, Europaz kanpoko pertsonak dira eta alde egiten dutenak oster, 60ko hamarkadan etorri ziren pertsona jubilatuak. Fenomeno hau, nahiko ohikoa da Bizkaiko gune industrialetan, batez ere gogorra Ibarrezkerrean eta jakina, beste gune industrialetan ere ikusten dena.

EAEz kanpoko lurraldeetako migrazioa, nahiko txikia izan da historikoki Lea-Artibain (ikus bestela Ama hizkuntza datuak) eta ia ez da existitu herririk txikienen kasuan. Gaur egun ematen dena, itsasoarekin lotuta dago gehien bat. Itsasoan lan egiten dutenak, etorkinak dira Senegaldarrak eta Perutarrak Lekeitio eta Ondarroan.

Lea-Artibai. 1999ko datuak.

Herria	Beste lurralde batzuetatik egon den migrazioa			Udalerri barruko migrazioa	EAEkiko migrazioa		
	saldoa	etorritakoak	joandakoak		saldoa	etorritakoak	joandakoak
Amoroto	-1	0	1	0	0	4	4
Aulesti	-2	0	2	6	-1	5	6
Berriatu	-1	0	1	16	7	19	12
Etxebarria	-10	1	11	3	8	26	18
Gizaburuaga	0	0	0	0	0	2	2
Ipazter	3	3	0	16	-5	8	13
Lekeitio	-16	23	39	238	6	108	102
Markina	-10	18	28	155	-20	49	69
Mendexa	2	2	0	4	1	13	12
Munitibar	0	0	0	1	-1	4	5
Ondarroa	24	72	48	378	-58	79	137

Jatorria: www.eustat.es

EAEko migrazio datu hau, txikiagoa da herri industrialetan (Etxebarria eta Markina) baina badaude banaka batzuk. Esango nuke gainera urteotan nagusitu diren lan-kontratu tipoak (zabor kontratuak) epe laburretarako jendearen etorrera eta joatea suposatzen dutela. Beste alde batetik, industrialderik handienak Berriatun egon arren, jende hori ez da joaten bertara bizitzera

Udalerri barruko migrazioa izugarria da herri handietan: batez ere Ondarroa eta Lekeitio, non lur faltak eta izugarrizko espekulazioak, jendea leku batetik bestera eramaten duen.

EAEkiko migrazioa ez da Goi Nerbioin bezain inportantea eta gehienetan, saldo negatiboa du eskualdearentzat.

1.3.-euskeraren ezagutza datuak

Edozein hizkuntzaren erabilerarako ezinbesteko baldintza da bere ezagutza. Azpian agertzen diren datuak, azken inkesta soziolinguistikoak dira, 1996koak.

Goi Nerbioiko herriak. 1996ko datuak. 2 urtetik gorako biztanleak

Herria	bizilag	Euskaldunak			Ia-euskaldunak				Erdaldunak	
		Alfabet	Alfab gabeak	Guztira Ehunek.	Alfabet	Alfab gabeak	pasiboak	Guztira Ehunek.		Guztira Ehunek.
Orozko	1.851	551	629	63.7	123	143	98	19.6	307	16.5
Ugao	4.098	1207	238	35.2	469	137	93	17	1954	47.6
Zeberio	882	425	332	85.8	25	25	23	8	52	5

Jatorria: www.eustat.es

- ❖ Ezagutza datuak, altuak dira nekazal inguruan. Zeberio eta Orozkoko kasuan erdaldunen ehunekoa baino askoz altuagoa da euskaldunena. Ugaon oster, industrializazioa eta 60ko hamarkadako etorkin oldeak ezagutu zituen herrian, bizilagunik gehienak, erdaldunak dira.
- ❖ Ia euskaldunen kopurua, bai Orozkon eta baita Ugaon, beste edozein tokitan halako bikoitza da. Pentsatu ahal da, jende guzti hau, euskalduntze prozesuaren bidean geratu dela edota jatorriz ama hizkuntza euskera izanda, hizkuntza galdu duela.

Datu hauek, erabilera taularekin (begiratu 1.4 puntuko taula) konparatuz eta bertan agertzen den ama hizkuntza datuekin, pentsatu ahal da, euskaldun berri asko dagoela bi herriotan; hala ere, lehen taula honetako ia-euskaldun alfabetatu eta ez alfabetatuen datuak aztertuta, ikusten da alfabetatuak gehiena direla Ugaon, baina ez Orozkon, beraz, egiten den irakurketa da, bietan euskaldun berri asko dagoela eta era berean, Orozkon, hizkuntza galdu edo galtze prozesuan daudenak ere asko direla, ohikoa baino gehiago.

- ❖ Ugaoko euskaldun alfabetatuen eta ez alfabetatuen arteko proportzioa 6:1ekoa da (1.207:238), eta beste herrietan, proportzio hori 1:1ekoa da gutxi gorabehera. Suposatu ahal dugu, Ugaoko euskalduntzea, eskolaren bidezkoa dela, azken urteetakoa eta ondorioz, gazte eta umeetan zentratzen dela beste inon baino gehiago.

Lea-Artibai. 1996ko datuak. 2 urtetik gorako biztanleak

Herria	bizilag	Euskaldunak			Ia-euskaldunak				Erdaldunak	
		Alfabet	Alfab gabeak	Guztira Ehunek.	Alfabet	Alfab gabeak	pasiboak	Guztira Ehunek		Guztira Ehunek
Amoroto	365	182	174	97.5	2	2	1	1.3	4	1
Aulesti	644	282	334	95.6	5	7	2	2.1	14	2.1
Berriatu	965	434	484	95.13	5	21	14	4.1	7	5
Etxebarria	769	328	398	94.4	8	28	2	4.9	5	6.5
Gizaburuaga	135	101	33	99.2	0	0	0	0	1	0.7
Ipazter	618	567	23	95.4	16	6	5	4.3	1	0.1
Lekeitio	7.314	3.901	2.473	87.1	135	281	252	9.1	272	3.7
Markina	4.645	2.698	1.436	89	71	139	110	6.8	191	4.1
Mendexa	330	136	168	92.1	6	6	8	6	6	1.8
Munitibar	391	108	272	97.1	0	7	1	2	3	0.7
Ondarroa	10.065	4.978	3.385	83.03	155	409	432	9.8	706	7

Jatorria: www.eustat.es

- ❖ Lehen irakurketa da, ezagutza datuak, oso altuak direla.
- ❖ Datuak, homogeneousak dira leku guztietan; euskaldunen zutabeetan, ez dago portzentajeetan alde handirik; ezta ere ia-euskaldunetan eta gauza bera erdaldunetan.
- ❖ Arraroa da eta azalpenik gabekoa Ipazterko euskaldun alfabetatu kopurua (alfabetatu gabeak baino 24 bider gehiago). Ipazterrek, ez du eskolarik, ez euskaltegirik eta bertako biztanleak ez dira ezertan ezberdintzen Lea-Artibaiko edozein herri txikitakoekin. Nik uste dut, datuak txarto daudela eustat-eko orrian.

1.4.-Euskeraren erabilera datuak

Hizkuntzaren erabilera datuak, jatorri ezberdina izan dute; eustatek 1996an egindako erroldan, etxean erabilitako hizkuntzari buruz eta ama hizkuntzari buruz galdetzen zen.

Kalean erabilitako hizkuntza datuak oster, 1998an EKBk egindako kale neurketatik atera ditut, eta kale neurketa horren barruan bakarrik 5.000 biztanleko herriak neurtzen zirenez eta gainontzekoen %10a bakarrik, herririk gehienetako datuak, Txilardegiren formula matematikoa aplikatuta atera behar izan dira.

Beraz datuen interpretazioa egiteko orduan kontuan izan beharko ditugu faktore horiek.

Goi Nerbioiko herriak. 1996

Herria	Ama hizkuntza:	Etxean erabilitako hizkuntza	Kalean erabilitako hizkuntza	Hiztun kopurua
	Euskera %tan hiztun kopuruarekiko			
Orozk o	54.2	24.6	32.4	1.888
Ugao	22	8.8	8.3	4.173
Zeberio	83.2	65.7	67.47	899

Jatorria: ama hizkuntza eta etxean erabilitako hizkuntza: www.eustat.es

Kalean erabilitako hizkuntzaren estimazioa, 1998ko urriko **Bat aldizkaria** 28. zk

OHARRA: ez da kontuan hartzen hizkuntza biak erabiltzen diren kasuan

Arreta deitzen du Orozkoko lerroak ama hizkuntza eta etxeko erabileraren artean 30 puntuko aldea egoteak, eta kaleko erabilera datuak, baikorregiak ematen dute horren alboan.

Galdetutako pertsona guztiek (lehen zati honen 4. puntuan aipatzen dira galdetutakoak) ontzat eman dituzte goiko datu horiek, horretan eragin dezaketen faktoreei buruz galdetuta, hurrengoak azpimarratu dituzte:

- ☒ Herriko zerbitzuak, Zubiaur auzoan zentratzeko joera gero eta handiagoa, auzo honetan, tabernari, dendari eta bankuetako langileen %15a da bakarrik euskeraz hitz egiteko kapaz.
- ☒ Kanpotik etorritako jendea, batez ere Laudiotik, erdaldunak dira.
- ☒ Jendearen interes falta euskerarekiko eta bere erabilerarekiko.

Ugao eta Zeberioaren kasuan, ama hizkuntza eta etxeko erabileraren arteko tartea, 15 punturen inguruan geratzen da eta erabilera alde handirik ez dago etxeko eta kaleko hizkuntzen artean.

Lea-Artibai. 1996

Herria	Ama hizkuntza:	Etxean erabilitako hizkuntza	Kalean erabilitako hizkuntza	Hiztun kopurua
	Euskera %tan hiztun kopuruarekiko			
Amoroto	95.4	94.3	93.69	374
Aulesti	95.4	91.4	89	658
Berriatu	92.2	87	87.8	978
Etxebarría	92.8	82.8		788
Gizaburuaga	95.5	97	98	136
Ipazter	95.6	92.4	88.6	624
Lekeitio	80.6	73.2	70.1	7.430
Markina	83.2	67.5	74	4.713
Mendexa	89.3	84	80.8	338
Munitibar	97.4	93.9	92.8	397
Ondarroa	75.6	69.3	62.1	10.247

Jatorria: ama hizkuntza eta etxean erabilitako hizkuntza: www.eustat.es

Kalean erabilitako hizkuntzaren estimazioa, 1988ko urriko **Bat aldizkaria** 28. zk

OHARRA: ez da kontuan hartzen hizkuntza biak erabiltzen diren kasuan

Ama hizkuntza euskera dutenen ehunekoa oso altua da. Lea-Artibain, ez da egon beste leku batzuetan egon den industrializazio prozesua eta ondorioz, azken hamarkadetan biztanleak galdu zituen eskualde apurrenetarikoa izango da (salbuespena, Markina).

Horrez gain, ikusten da euskerarenganako leialtasun handia dagoela Lea-Artibain, erabilera datuak hala erakusten dutelako. Kasurik gogorrenean, ama hizkuntzatik etxeko erabilera hizkuntzara dagoen aldea, 6 puntutakoa da.

Gauza bera kaleko hizkuntzari buruz, nahiz eta herrietako jendearekin honetaz berba egiterakoan, zenbait kasutan zalantzan ipini dituzten Txillardegiren eredu matematikotik ateratako datuak.

2.- Hezkuntza ereduak

Unibertsitate aurreko hezkuntza

Goi Nerbioiko herriak. 2000/2001

Herria	Haur hezkuntza			Lehen hezkuntza			DBH*			Batxilergoa*			Lanbide heziketa*		
	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D
Orozko	-	-	87			64			%100						
Ugao	-	16	102	6	59	103	%14.9	%15.3	%73.6			%100			
Zeberio	-	-	29			37			%100						

Jatorria: www.eustat.es

*Gutxi gorabeherako kalkuluak. Herri hauetako gazteak, DBH, Batxilergoa eta LH egitera alboko herri handiagoetara (Laudio, Arrigorriaga eta Igorre) joaten dira. Hor agertzen diren ehunekoak, zentroko ikasterearen banaketa dira

Hiru herrietako eskolek, lehen hezkuntzako ereduak dituzte bakarrik; hortik aurrera, alboko herrietara joaten dira: Zeberioko umeak Igoerrera, Orozkokoak Laudiora eta Ugaokoak Arrigorriagara.

Datuen arabera, Orozko eta Zeberioko eskoletan eskaintzen den eredu bakarra, euskera hutsezkoa da, eta Ugaon, A eta B ereduak irakaskuntza baldin badago ere desagertzeko bidea daramate.

DBHari dagokionez, Laudio, Arrigorriaga eta Igorreko eskoletako datuen arabera euskerazko D eredu nagusi da gure intereseko herritarren artean.

Batxilergoari dagokionez, sakabanaketa da nagusi inguruan; gazteak Basauri, Laudio, Bilbo, Arrigorriaga eta beste zentro batzuetara joaten dira eta lortu ahal izan ditugun datu bakarren arabera, Arrigorriagara joaten diren Ugaotarren %100a euskerazko eredu aritzen da, nahiz eta kopuru absolutuei begira, oso gutxi dira.

Lanbide heziketako daturik ez da lortu, baina batxilergoa ikasten dutenen kasuan bezala, sakabanaketa handia da.

Lea-Artibai. . 2000/2001

Herria	Haur hezkuntza			Lehen hezkuntza			DBH**			Batxilergoa***			Lanbide heziketa****		
	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D
Amoroto			11			9			%100			-			
Aulesti			23			19			%100			-			
Berriatu			9			27			%100			-			
Etxebarría			28			35			%100			-			
Gizaburuaga			*			-			%100			-			
Ipazter			5			8			%100			-			
Lekeitio			227			379			%100			226			
Markina			147			232			%100			-		%100	
Mendexa			*			-			%100			-			
Munitibar			14			15			%100			-			
Ondarroa			279			491		%6	%95	%7.3		%94.7	%22.8		%77

Jatorria: www.eustat.es

*Gizaburuaga eta Mendexako umeak, Lekeitiora joaten dira Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza egitera

**DBHko zentroak, Lekeitio, Markina eta Ondarroan daude; eskualde guztiko umeak hor kontzentratzen dira.

***Batxilergo zentroak Markina eta Ondarroan aurkitzen dira; hauez gain, Aulesti, Munitibar eta Gizaburuagakoak, Gernikara joaten dira, eta euskerazko ikastereduetan ikasten dute

****Lanbide Heziketa zentroak Markina eta Ondarroan; eskualdean LH aukeratzen dutenak, eurotara joaten dira gehien bat.

Dagoen hezkuntza ia eredu bakarra, D eredu da Lea-Artibain. Joera hori apurtzen duena, Markinan kokatutako "Lea-Artibaiko Teknik ikastetxea" deitutako da, hemen hezkuntza, B ereduaren arabera eskaintzen da.

Goi Nerbioi eta Lea-Artibain eskaintzen den irakaskuntzak, badu soziolinguistikaren aldetik inportantzia izan ahal duten zenbait berezitasun.

K Goi Nerbioiko umeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza burutzeko ateratzen dira euren herrietatik eta herri handiagoetara joaten dira ikastera, normalean, inguru erdaldunago batera. Lea-Artibaiko umeak oster, ez dira ateratzen unibertsitate garaira arte eskualdetik (salbuespena lirake Gernikara Batxilergoa egitera joaten diren gazteak, batez ere Leatik)

K Ikusi ahal da hemen ere, Lea-Artibai, eskualde nahiko "itxia" dela, bertako jendeak ikasi, bizi eta lan eskualdean egiten du; Goi Nerbioan oster, komunikazioak hobeak direlako edo Bilbo Handitik gertu daudelako, jendearen mugikortasuna, handia da.

K Gero eta gehiago, jendea eskualdeko herri handietan kontzentratzen da eta Mendexa, Gizaburuaga edo Ipazter bezalako herriek, eskolak galdu dituzte eta zerbitzuak, Lekeitio kontzentratzen dira; ematen du azken urteotako dinamikaren arabera, Lekeitioaren auzoak izateko bidean direla.

3.- Datu sozio-ekonomikoak

3.1.- Langabezia eta biztanleen jarduna

Goi Nerbioiko herriak. 1996ko datuak.16 urtetik gorako biztanleak

Langabezia datuak: INEM 2001

Herria	Langabezia		Lanaren banaketa sektoreka %kotan				
	Kopurua 2001	Joera %tan	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	guztira
Orozko	55	%-17,9	%6.8	%35.3	%6.5	%51.2	630
Ugao	154	%-14,9	%1	%40	%9.7	%48.7	1415
Zeberio	23	%-4,2	%9.6	%33.1	%7.2	%50	302

Jatorria: www.eustat.es

2001eko datuen arabera, Goi Nerbioi eskualdean langabeziak behera egin du hiru herrietan.

Era berean, sektorekako azterketak erakusten du datuak oso antzekoak direla. Ondorioz, pentsatu ahal da Orozko eta Zeberioiko biztanleen kasuan jendeak alboko herri industrialetan egiten duela lan, baina ez herrian bertan, ez bait dago ez industriarik eta ezta ia zerbitzurik ere.

Lea-Artibai. . 1996ko datuak.16 urtetik gorako biztanleak

Langabezia datuak: INEM 2001

Herria	Langabezia		Lanaren banaketa sektoreka %kotan				
	Kopurua 2001	Joera %tan	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	guztira
Amoroto	7	%40	%15.5	%35	%9	%40.2	154
Aulesti	5	%25	%7.6	%39.5	%9.7	%42.9	235
Berriatu	11	%-8.3	%14.5	%43.5	%8	%34	400
Etxebarria	15	%0	%12.5	%49.5	%5.6	%32.2	319
Gizaburuaga	1	%-50	%27.8	%36	%3.2	%32.7	61
Ipazter	11	%-8.3	%24	%31.6	%6.1	%38.2	212
Lekeitio	130	%25	%19.1	%22.5	%7.2	%51.4	2.430
Markina	88	%-9.3	%6.5	%42.3	%7.6	%43.5	1.643
Mendexa	9	%12.5	%13.3	%27.6	%13.3	%45.7	105
Munitibar	3	%0	%15.4	%26.8	%7.3	%50.3	149
Ondarroa	184	%-9.8	%27.45	%28.9	%4.5	%39	3.639

Jatorria: www.eustat.es

Herri txikietako langabezia datuak, ez dut uste oso esanguratsuak direnik; biztanle kopuruak hain txikiak izanda ehunekoak arraroak dira kasu batzuetan. Beste alde batetik, azpimarragarria da langabetuen kopurua oso txikia dela;

batez ere Goi Nerbioiko datuekin konparatuta, adibide baterako, Ugaon langabe gehiago dago Lekeition baino, eta honek bikoiztu egiten du ia populazioan nahiz eta urte batean langabeen ehunekoak asko igo.

Datuetan ez da ikusten baina lan egin nahi duten pertsonak topatzea zaila gertatzen zaie eskualdeko sektore nagusiei: arrantza eta kautxuaren industria Ondarroa eta Berriatun eta Ostalaritza Lekeitio inguruan.

3.2.- Udaletako aurrekontuak

. 2000ko datuak Eurotan

Jatorria: www.eustat.es

Herria	Udalaren aurrekontuak
	sarrerak
Amoroto	482.823
Aulesti	807.460
Berriatu	718.209
Etxebarria	1.094.449
Gizaburuaga	430.415
Ipazter	682.996
Lekeitio	5.550.761
Markina	4.531.926
Mendexa	648.071
Munitibar	784.922
Ondarroa	5.450.519

Herria	Udalaren aurrekontuak
	sarrerak
Orozko	2.212.632
Ugao	2.698.989
Zeberio	1.828.369

Goiko aurrekontuetatik zenbat diru esleitzen zaion euskeraren normalizazioari jakitea, zaila da, batez ere gehienetan, kulturaren barruan daudelako eta bertan era guztietako ikuskizunak sartuta daudelako, "euskal ezkontzetatik" hasita "mus txapelketetaraino", hau da udalek ez dute bereizten jaietan egindako jarduera ludikoak euskeraz, euskeraren jaiak finantzatzeko dirulaguntzak (Nafarroa Oinez, Ibilaldia, Korrika....) eta euskeraren erabilera sustatzeko erabiltzen den dirua.

Dena den, udalen aurrekontuen %2aren inguruan dabil kasurik gehienetan. Honen barruan, euskeraren erabilera sustatzeko diru gehiago edo gutxiago erabiliko da baldin eta udal horrek euskera teknikaririk badu ala ez.

4.-Joera politiko nagusiak

Laugarren puntu honetan, alde batetik, azken hauteskundeetako emaitzak erakusten dira eta bestetik, egindako galdeketa informaletatik jasotako erantzunak.

Laugarren puntu honetan aurkituko diren zenbait gauzari buruzko puntu batzuk argitu beharra dago.

4.2.- puntuan agertzen diren galdeketa erantzunen helburua, herritarren jarrera eta udalerrian diharduten taldeek euskerari zelako inportantzia ematen dioten jakitea da, herri bakoitzaren bizitza soziala nahiko ondo ezagutzen duten pertsonen eskutik.

Herri bakoitzeko pertsona bi hartu izan ditugu (herri handien kasuan 3-4), eta galdeketa pertsona horiei egiteko irizpideak hurrengoak izan dira:

- Ø Herri txikiaren kasuan, aspaldi euskera munduan aritutako pertsonak bilatu izan dira. Horren arrazoia, deformazio profesionalagatik baino ez bada ere, euskeraren gaiaren behatzaileak direla da.
- Ø Eskolako irakasleak ere izan dira galdetutakoen artean. Hauek, urte osoa egiten dute herriko giro sozialean txertatuta eta harreman handia dute guraso eta umeekin.
- Ø Herri handien kasuan (Ugao, Markina, Ondarroa eta Lekeitio), bakoitzetik udaltzain bat erabili izan da: udaltzainek kaleko harreman handia dute eta gertatzen den guztiaren termometro ona direla uste dut.
- Ø Kafetegietako langileak ere parte hartu dute galdeketa, tabernetan, denbora asko egiten dugu eta iritzi baliagarriak jaso ahal izan dira pertsona hauengandik.
- Ø Alderdi politikoen barruan, euskerarekin harremana duten pertsonak galdetu izan dira.
- Ø Udaletako euskera zerbitzuetan ere galdetu izan da hau dagoen kasuetan (kasuren baten itzultzailea deitzea nahiago izan arren).

4.3.-puntuko erantzunak jaso ahal izateko, herri bakoitzean lan egiten duten zenbait talderengana jo izan dugu eta galdetu euskerari ematen dioten inportantziari buruz:

- Ø Sindikatuetan galdetu dugu (ELA eta LAB) Lea-Artibain.
- Ø Merkatarik elkarteko ordezkaria.
- Ø Aisialdi talde batekoa eta beste bat mendizale elkarte batekoa
- Ø Herrietan, kultur edo kirol taldeak eta kasuren baten guraso elkarren bat
- Ø Herririk txikiaren ez da egin, ez dagoelako funtzionamendu jarrai bat daraman talde antolaturik (badaude suteen kontrako anaikidetasunak eta basoen ustiapenerako eta bideen kudeaketarako elkarteak, baina ez deritzo interesgarriak direnik).

4.1.-Azken hauteskundeetako emaitzak: eusko legebiltzarrerako hauteskundeak emaitzak (2001-5-13) eta udalen osaketa

Goi Nerbioi. EAEko legebiltzarrerakoak

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2001-5-13 zentsuaren ehunekoa				
Beste batzuk + abs + zuri	PP	PSE	EH	EAJ-EA
%17.5	%9.2	%2.4	%9.2	%61.7
%22.9	%11.4	%11.2	%12.5	%42
%16.1	%2.1	%1.7	%21.4	%58.7

Jatorria: www.eustat.es

Udal hauteskundeak

Zinegotzi kopurua					
EAJ-	EA	EH	PSE	PP	indp
5	-	3	-	1	-
5*		4	2	1	-
4	-	3	-	-	-

*EAJ+EA

**Orozko
Ugao
Zeberio**

Orokorrean esan dezakegu, Goi Nerbioiko botoa abertzalea dela, batez ere Orozko eta Zeberion eta banatuta dagoela Ugaon.

Hiru kasuetan alkatetzak EAJ-PNV alderdiarentzat dira gehiengo osoz, nahiz eta Ugaon, EAekin bat eginda joan.

Lea-Artibai. EAEko legebiltzarrerakoak

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2001-5-13 zentsuaren ehunekoa				
Beste batzuk + abs + zuri	PP	PSE	EH	EAJ-EA
%11.9	%0	%0	%15.4	%72.7
%21.1	%3.5	%0.5	%26.2	%48.7
%21.3	%2.4	%0.9	%20	%55.4
%14.7	%1.5	%0.6	%26.1	%57.1
Eustaten datuak txarto daude eta udalean ez dauzkate				
%15.1	%4.3	%0.1	%12.2	%68.3
%19.1	%3	%0.1	%21.3	%56.5
%23	%4.1	%0.1	%17.4	%55.4
%11	%4	%0	%30	%55
%15.4	%2.6	%0	%17.6	%64.4
%21.1	%6.1	%2.2	%26.1	%44.5

Jatorria: www.eustat.es

Udal hauteskundeak

Zinegotzi kopurua					
EAJ	EH	EA	PSE	PP	indp
-	-	-	-	-	7
-	7	-	-	-	-
-	-	-	-	-	7
4	3	-	-	-	-
-	-	-	-	-	5
5	2	-	-	-	-
5	5	3	-	-	-
6	4	1	-	-	-
4	3	-	-	-	-
-	7	-	-	-	-
6	9	1	-	1	-

Amoroto
Aulesti
Berriatu
Etxebarria
Gizaburuag
Ipazter
Lekeitio
Markina
Mendexa
Munitibar
Ondarroa

Azken hauteskundeak erakusten dutenez, alderdi abertzaleak gehiengo handia dira eta euren barruan, EAJ-PNVk, botoen erditik gora dabil lekurik gehienetan. Datu hau osteraz, maiatzaren 13ko egoeraren baitan ulertu behar da, zeren udal hauteskundeetako datuak aztertuz (1999) ikusi ahal da alkatetzarik gehienak, EH (gaur egun Batasuna) alderdiaren eskuetan daudela, alkatetza hauen barruan, herririk handienak (Ondarroa eta Lekeitio).

Eskualdeko zenbait herritan fenomeno berezia ematen da; ez da alderdirik aurkezten eta zerrenda bakarrean, kolore politiko diferenteetako pertsonak joaten dira.

4.2.- Herritarren arteko jarrerak. (giro subjektiboa)

Puntu honen sarreran esan bezala, galdetegietan jasotako informazioa agertzen da hemen era laburtu batean. Galdeketetatik herriko giroaz dagoen sentsazioa, hurrengo puntuetan laburtu ahal da:

□ Euskeraren inguruan

Ø Lea-Artibaiko herrien artean, euskerari eta bere sustatzeari ematen zaion inportantzia askoz handiagoa da Goi Nerbioin baino (Zeberio salbuespena litzateke)

Ø Lea-Artibain, ez da uste euskera bultzatzeko nahiko egiten denik, batez ere Erkidego Autonomo eta Foru Aldundien aldetik. Udalei buruzko iritzietan, ez dago horrelako adostasunik. Goi Nerbioin, iritzien gama osoa jaso ahal da, batzuek esaten dute egin behar den guztia egiten dela eta beste batzuk ez dela ezer egiten inon.

Ø Dena den, Goi Nerbioin, euskeraren etorkizunari buruzko itxaropena handiagoa da, pentsatzen da egoera hobera doala, batez ere eskolen eraginez; Lea-Artibain, eszeptiko gehiago dago. Udaletatik alderdi ezberdinak pasatu ondoren, morala galduta eta "erreta" dagoen jendea ere badago. Eskolen eragina positiboa izan arren eta aurrera pausuak egon direla onartu arren, ikusten da ez dela behar zen besteko edo itxaroten zen besteko jauzirik egin.

□ Herriko giroaz galdetuta

Ø Lea-Artibaiko herririk handietan, gaur egun Lekeitio eta Ondarroan Batasunak darama alkatetza eta Markinan EAJ-PNVk. Lehenengo kasu bietan, batez ere Ondarroan, ikusten da aldaketa egon ahal dela udal gobernuan, hori pentsatzeko emandako arrazoiak, batez ere bi dira: ohikoa izan da azken hamarkada bietan alternantzia eta bestetik, Batasunaren lege-kanporatzearen ondorengo egoera ez da aurreikusten. Markinako kasuan, EAJ-PNVren alkatetza ia segurua dela uste da.

Lea-Artibaiko gainontzeko herrietan, ez da pentsatzen gaur egungo egoera asko aldatuko denik: gaur egun EAJk agintzen duen lekuetan, alderdi berdina ikusten dute etorkizunean ere, independenteak dauden lekuan ere independenteak ikusten dituzte eta Batasunak agintzen duen lekuetan, independente moduan edo beste formula bat erabiliz baina gaur egun Batasunan dagoen jendea ikusten dute udal gobernuan.

Goi Nerbioiko kasuetan, hiruetan EAJ dago udal gobernuan; eta galdetutakoek pentsatzen dute aurrerantzean ere horrela izango dela.

Errepikatu behar da berriro ere, galdeketaren helburua ez zela ikerketa enpiriko zehatza egitea baizik eta gizarteko partaide pisutsuak diren pertsona eta elkarteak iritzia ezagutzea.

Ø Lea-Artibaiko herri handietan, giro soziala, baretu egin dela uste dute legegintzaldi honetan udaleko aurreko legegintzaldietakoarekin alderdiz. Alderdi eta eragile politikoen arteko harremana, normaltzen joan dela ikusten da.

Herri txikietan, beste legegintzaldietako giro bera ikusten da. Gainera, askotan zinegotziak errepikatzen dutenez, gauzak beste patxada batez bizi dituztela ikusten da

Goi Nerbioiko udaletan ere, alderdietako ordezkarien arteko harremanak, normalak ikusten dituzte, udaleko dinamika, ez du baldintzatzen gero kalean pertsonen arteko harremana.

4.3.-Gizartean eragina duten taldeentzat, euskeraren inportantzia

Ez da galdetu talde bakoitzak zelako ematen dion, baizik eta herrian funtzionatzen duten talde antolatuek zelako inportantzia ematen dioten euskerari izan da jakin beharrekoa.

- Ø Orokorrean esan ahal da taldeen aldetik inportantzia handiagoa ematen zaiola euskerari Lea-Artibain Goi Nerbioin baino.
- Ø Inportantzia handiagoa ematen diote leku guztietan kultur taldeek, talde politiko eta sindikatuak gero kirol taldeak eta txikiagoa ekonomia munduarekin estuki lotuago dauden taldeetan.
- Ø Talde bakoitzaren barruko euskerazko funtzionamendua ona moduan baloratzen dute eta orokorrean taldeetako partaideek uste dute gainontzeko taldeetan euskeraren egoera ona dela.
- Ø Taldeetan, euskeraren aldeko pausuak emateko prest agertzen dira, nahiz eta oztopoak ikusten dituzten: partaide gutxi, denbora gutxi, gaitasun eza eta antzeko kontuak.

5.- Herritarrek

Herritarren ohituren gainean, aurreko puntuko erantzunak eman dituzten partaideei galdetu zaie.

5.1.-Gazteen ohiturak: aisialdi antolatua eta ez antolatua.

Jasotako erantzunak laburrean, hurrengoak dira:

- Ø Gazteak, tabernetan batzen dira adin jakin batetik aurrera, eta aurretik herriko leku publikoren baten (plazan, parkeren baten eta kostaldean, hondartzan). Asko gehitu omen da. Garaje eta antzeko lokaletan batzen diren gazteen taldeak.
- Ø Lea-Artibain, gazteak ez dute ia herritik irteten, Goi Nerbioin oster, Laudio, Arrigorriaga, Igorre eta orokorrean inguruetako herri handiagoetan kontzentratzen dira.
- Ø Gazteak Lea-Artibain, egunero batzen dira, lagunarte edo koadrila nahiko definituak ezarriz; Goi Nerbioin, egunero batzen diren gazteak, asteburuetan eta oporretan batzen direnak baino askoz gutxiago dira.
- Ø Zerbait egiten duten gazte talde informalak, gehienetan, musikara dedikatzen dira. Horretarako, udalaren lokalen bat edo etxekartekoren baten lokalen bat erabiltzen dute.
- Ø Orokorrean aisialdi antolatua kirol taldeena da (futbola, txirrindularitza, arrauna...), horrez gain, mendi taldeek, deialdi zabalak egiten dituzte txangoak egiteko.

Hemendik aparte, ez dago ia ezer 15-18 urteko pertsonentzat.

5.2.-Herriko eragile nagusiak

- Ø Herrietako eragile nagusiak, gehienetan, alderdi politikoak izaten dira, horien inguruetan batzen diren pertsonak zehazten dute aurrerantzean jorratu beharreko bidea.
- Ø Herri handietan, (Ugao, Ondarroa, Markina eta Lekeitio) alderdi politiko nagusiek (Batasuna eta EAJ-PNV) kultur taldeak dituzte. Kultur talde hauek herriko taberna edo batzokiaren inguruan mugitzen dira eta eurei aitortzen zaie udaleko erabakien gaineko ezagutzarik altuena eta era berean arlo instituzionalean eragiteko gaitasunik handiena.
- Ø Talde antolatuei orokorrean jaramon gehiago egiten zaie banakoei baino, adibidez, "soziedadeak" edo merkatari elkarteek pisu handiago dute banakoek baino.
- Ø Talde jakin batzuek, gai jakin batzuetan dute bakarrik pisia; adibidez, AEKri euskeraren gaineko gaietan jaramona egiten zaio baina ez beste kontu askotan, gauza bera guraso elkarte, eskola eta beste batzuei buruz. Agian interpretazio pixka bat librea eginez, pentsatu ahal da bakoitzaren ahalmen ekonomikoak baldintzatzen duela puntu hau.
- Ø Banakoei dagokionez, alkateek indar handia dute herrietan eta herritarrengan. Udal barruko funtzionamenduan oster eta batez ere herririk txikienetan, pisu handia hartzen dute udaletako idazkariak.
- Ø Herritarren artean, prestigiorik handiena duten pertsonak, inteligenteak eta diru arazorik gabekoak izaten dira (gerenteak, enpresariak, lanbide liberaletakoak, sukurtsaletako zuzendariak...). Gehienetan, pertsona hauek,

talde politikoekin harremanak izaten dituzte (batzokiaren partaideak, herrietako talde politikoetako komisioko partaideak eta abar)

Konparazio orokorra

Bi errealitateen arteko konparaketa egiterako orduan, soziolinguistikarako baliagarriak izan ahal diren faktoreak hartu nahi ditut bakarrik kontuan.

K Euskeraren ezagutza eta erabilera datuak altuak dira Lea-Artibain eta Goi Nerbioiko zenbait gunetan. Beste leku batzuetan oster, (Ugao eta Orozko), erabilera baxuko gunen bezala kontsideratu behar dira eta ondorioz hizkuntzaren sustatzea planteatzerako orduan beste ikuspegi batetik eta beste lehentasun batzuen arabera planteatu beharko dira.

K Hezkuntza ereduak datuak positiboak dira; Lea-Artibain erabateko nagusitasuna du euskerazko unibertsitate aurreko hezkuntzak eta Goi Nerbioin, ia erabatekoa. Beste kontu bat da hezkuntza sistemak ez diola horri jarraipena bermatzen gaur egun, batez ere Lanbide heziketan eta Unibertsitate mailako ikasketetan.

K Joera politikoen aldetik, abertzaletasunaren gehiengoa azpimarragarria da. Hauteskunde ezberdinetako emaitzak erakusten dute gainera, herritarrak abertzaleak direla ezkerreko edo eskuineko izatearen gainetik. Esan baita, agintari politikoen aldetik, euskerarenganako jarrera positiboa dela ahoz kasu guztietan, nahiz eta gero ez den ikusten mugimendu praktikorik bere sustatze aldera zenbait kasutan eta beste zenbaitetan (normalean politikakeriengatik), kontrako pausuak ere eman.

K Lea-Artibairen kokapen fisikoak (hiri handietatik urruti) , bere komunikazio bide eskasak eta industrializazio txikiak, lortu du eskualdeak sistema itxia osatzea, horrek azalduko luke euskeraren ezagutza eta erabilera altuak (eustaten arabera eta Sei elkarteak oraintsu egindako kale neurketen arabera, Euskal Herriko altuenak).

K Goi Nerbioiko herriek, ez dute erakusten Lea-Artibaikoek duten batasuna. Goi Nerbioiko herriek, ondo komunikatuta daude, gunen industrialak alboan dituzte eta ondorioz bertako herritarren bizitokia honela labur liteke: herri txikian lo egin eta beste herria handiagoren batean lan eta zerbitzuak lortu. Ondorioz, ez dago hartu-emanik Orozko eta beste bien artean eta Ugao eta Zeberioaren artekoa ere norabide bakarrekoa da (Zeberioztarrak joaten dira Ugaora) eta ez handiegia (bakarrik herbekoak joaten dira).

K Era berean, gunen industrial handietatik gertutasuna (Bilbo handia, Laudio, Gasteiz...) eta komunikazioen erraztasunak erabilera bajua dakarte euskeraren kasuan, hori gertatzen da Orozko eta Ugaon, azken honetan, gainera migrazioek utzitako jende andanak, ezagutza bajua dakarte. Inguru honetan

salbuespena, Zeberio da. Zeberio txarto komunikatuta dago eta ez du ezagutu oraintxe arte kanpotik etorritako populaziorik.

Bigarren zatia: PLANGINTZA ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA

1.-Lea-Artibai EUSKERARI: LEA-ARTIBAICO PLAN ESTRATEGIKOA

1.1.-Alderdi metodologikoak

1.1.1.-Kontseiluaren Plan Estrategikoak: oinarri teorikoak

1.1.2.-Lehentasunak

1.1.3.-Helburuak

1.1.4.-Denboralizazioa

1.1.5.-jarraipena eta ebaluazioa

1.2.-Proiektuaren baliabideak

1.2.1.-Proiektuaren babesleak

1.2.2.-Baliabide materialak

1.2.3.-Baliabide pertsonalak

1.2.3.1.-Lan Taldeen eskema, funtzioak eta dinamika

1.2.3.2.-Kudeaketako arduradunak

1.3.-Proiektuaren abiarazleak

1.4.-Euskalgintzaren funtzionamendua eskualdean

1.5.-Oztopo burokratikoak

1.6.-Gizarte eragileak

1.7.-Aholkularitza

1.8.-Gizarte eragileak lortzeko estrategia

2.- EUSKERA BIZIBERRITZEKO PLANAREN APLIKAZIOA GOI NERBIOI ESKUALDEAN

2.1.-Alderdi metodologikoak

2.1.1.-Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia: oinarri teorikoak

2.1.2.-Lehentasunak

2.1.3.-Helburuak

2.1.4.-Denboralizazioa

2.1.5.-jarraipena eta ebaluazioa

2.2.-Proiektuaren baliabideak

2.2.1.-Proiektuaren babesleak

2.2.2.-Baliabide materialak

2.2.3.-Baliabide pertsonalak

2.3.-Proiektuaren abiarazleak

2.4.-Euskalgintzaren funtzionamendua

2.5.-Gizarte eragileak

2.6.-Aholkularitza

2.7.-Gizarte eragileekin elkarlana

1.-Lea-Artibai EUSKERARI: LEA-ARTIBAICO PLAN ESTRATEGIKOA

1.1.-Alderdi metodologikoak

1.1.1.-Kontseiluaren Plan Estrategikoak: oinarri teorikoak

Bai euskerari akordioaren ildotik sortutako plangintza estrategikoen ezaugarrietako bat, gizarte eragileen partehartzean oinarrituak izatea da. Ez du horrek esan nahi administrazioan eragitea eta administrazio publikoaren babesa bilatzen ez dutenik, ez bada ere ze euskeraren sustatze eta berreskuratze historikoa eta gaur egungoa ere euskerazko kulturaren alde diharduten erakunde eta mugimenduen inguruan oinarritu izan dela eta dela.

Herri erakundeetan oinarritzeko ideia honek, aurrekari ideologikoak ditu. Besteak beste, hurrengoak:

K Txepetx

Txepetxek bere "Un futuro para nuestro pasado" liburuan, euskeraren etorkizunaz ari denean, dio etorkizun horren aktore printzipala, herria eta herri mugimenduak izan behar direla.

Txepetxentzat, hizkuntza normalkuntza, botere linguistikoaren birbanaketa sozialean datza. Honek esan nahi du botere politikoak, hizkuntza komunitateen premien arabera jokatu behar duela.

Hizkuntzaren erabilera, norberegandik hasita, maila internazionaleraino doan zirkulu kontzentrikoen multzoa da, baina hasieran, beti dago banakoa eta gero banakoak interakzioan.

K Fishman

Fishmanentzat oinarritzakoa, jendea bizi eta lan egiten duen komunitatean eragitea da; hau da, familia eta horren inguruan. Bakoitza hasi den eta bizi den inguru hurbilean, sentimentalean eragitea da lehentasuna: familia eta auzoa. (Xmen in Xish).

K Euskal soziolinguistak

Aspaldiko idatzietan, euskal soziolinguista asko eta asko mugimendu sozialen eta euskera elkarten inportantziaz idatzi izan dute, besteak beste Iñaki Arruti, Paulo Agirrebaltzategi, Imanol Agote...eta beste asko, horren adibiderako BAT aldizkariaren 16. zenbakian idatzitako artikulu sorta.

1991n, I. soziolinguistikako Inkesta egin zenetik onartutako ondorioetariko bat, euskeraren erabileran eragiten duten faktoreak psikolinguistikoak , (bakoitzaren hizkuntza gaitasun erlatiboa) eta faktore sozioestruturalak zirela.

Azken faktore honetan oinarrituta, euskeraz egin ahal izateko, "aukerak" behar dira: euskeraz egiteko prest dagoen jendea eta ingurua.


Horrez gain, Euskeraren Unibertsoa jardunaldietan (1996ko otsailean, Bai euskerari plangintza estrategikoaren ernamuina izan ziren jardunaldiak) gizartean kokatzen du euskeraren berreskurapenerako erantzukizuna, izan ere Plangintza Orokorren proposamena egiterako orduan, ikuspuntu sozialeko plangintza izan behar dela esaten da. Jardunaldiotan, esaten da baita, barietatean eta aniztasunean dagoela etorkizuna euskerarentzat

Horren ostean, behin Kontseilua sortuta, honek bere hasierako idatzietako batean dio literalki hurrengoa: *"kontseiluaren eginkizun edo misioa da gizarte eragileak, eragile politikoak eta euskalgintzako eragileak nork bere eskuetan dituen neurri normalizatzaileak hartzera eragitea, euskeraren berreskurapen prozesuan aldaketa kualitatiboak lortzeko."*

1.1.2.-Lehentasunak

Kontseilua, Plan Estrategiko pilotuetako bat garatzen ari da Lea-Artibain. Plan honek, Lea-Artibai EUSKERARI izena hartzen du eta Plan horretan, Kontseiluaren ildoak jarraitzen dira, lehentasuna eguneroko harremanak euskaratzea izango da; horretarako, gizartean indarra duten eragileak hartu eta euskeraren aldeko konpromiso minimo batzuk bilatzen egingo da ahalegina.

Lea-Artibairen kasuan, 425 gizarte eragileri luzatu zitzairen planean parte hartzeko gonbitea eta eurretatik 207k baieztatu konpromisoa hartu zuen. (%48)



Ondoren, baietza eman zuten eragileak, 9 sektoretan banatu zituzten eta diagnostikoa egiteari ekin zioten. Momentu honetan, Lea-Artibain Bai Euskerari Plangintza Estrategikoan ari diren teknikariak diagnostia egin eta helburuen fasean dihardute.

Horren ondoren, III. Fase batean sektore bakoitzak proposatuko ekintza zerrendatik, berak aukeratu eta aurrera eramatekoak hartuko dira.

1.1.3.-Helburuak

Helburu orokorra

Helburu orokorra komuna da Kontseiluak plangintzak aurrera daramatzaten leku guztietan, eta bere sorrera estatutuetan honela agertzen da:

".....helburua da euskeraren normalkuntza eta berreskurapen osoa lortzea Euskal Herrian, maila pertsonal, sozial eta ofizialean"

Helburu hau, Lea-Artibain euskalgintzan diharduten taldeek onartu eta bere egin zuten eta hortik abiatuta, helburu sektorialak jarri izan dira.

Helburu sektorialak

Helburu sektorial modura ulertzen dugu sektore bakoitzean epe ertainera (3-4 urte) jartzen diren helburuak. Helburu sektorial hauek, 8 eratakoak dira hasiera batean. Sektore bakoitzak, 8 esparru hauetan helburuak jarri beharko ditu datozen urteetarako.

1. Hizkuntza paisaia, irudi korporatiboa eta publizitatea.
2. Barne komunikazioa
3. Langile edo kideen euskalduntzea
4. Giza baliabideen kudeaketa
5. Kanpora begirako ahozko nahiz idatzizko komunikazioak
6. Euskara lan hizkuntza izatera begirako helburuak
7. Enpresa edo erakundean euskera plan osoa garatzera begirako helburuak
8. Egitura mailako helburuak: dokumentazioa, terminologia....

Helburu zehatzak

Diagnosiaren ondoren, eragile sozial bakoitzari egokitutako helburu zehatzak proposatuko zaizkio goiko esparru bakoitzaren barruan.

Helburu zehatz hauek, premiazko baliabide eta aurrera eramateko behar den denbora eta diru kostuaren kuantifikazioarekin batera egingo dira.

1.1.4.-Denboralizazioa

			2001				2002											
			Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	abendua
Aurrelan ak (26 aste)	Definitu		x															
	Jarraipen Batzordea		X															
	Teknikariak		X															
	Formazioa (kontseilua) (ez zen eman azkenean)		X															
	Aholkularitza (EMUN)			X														
	Prestakuntza				x													
	Formazioa (EMUN)				X	X	X	X										
	Lantaldeak osatu						X											
	BAI EUSKERARI sinatu								X									
Diseinua (28 aste)	Diagnosia (10 aste)	Elkarrizketak							x	X								
		Aurretxostena								X								
		Bilerak/Txosten									X	X						
	Helburuak (9 aste)	Elkarrizketak											X					
		Aurretxostena													X			
		Bilerak/Txosten														X	X	
	Konpromi soak (9 aste)	Elkarrizketak															X	
		Aurretxostena.													X		X	X
		Bilerak/Txosten													x			X

		2001				2002											
		Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	abendua
Konpromisoak hartzea	Txostena idaztea																X
	Ekarpenak jasotzea																X
	Sinatzea																x
Aplikazioa Inplementazioa		2005. urtean?															

1.1.5.-jarraipena eta ebaluazioa

Honi buruzkoa ez dago argi, hasiera batean, jarraipenaren diseinua eta datu jasotzea, Kontseiluak egin behar zuen, baina badirudi hau ez dagoela argi. Kontseiluak ez ditu jarraipena egiteko adierazleak zehaztu gizarte eragile bakoitzaren arabera. Ondorioz, baliteke jarraipena egiteko ardura Lea-ArtiBAI EUSKERARIko teknikariak izatea edo bestela EMUN edo antzeko erakunderen batek.

Inkesten emaitzak, Jarraipen Batzordeak aztertu eta Plan Estrategikoaren hurrengo faserako egin beharreko egokitzapenak proposatuko ditu.

1.2.-Proiektuaren baliabideak

Baliabideak aipatzen ditugunean, kontuan hartzen dugu egunero planean ari diren pertsonak eta pertsona horiek euren lana aurrera eramateko dituzten baldintza materialak

1.2.1.-Proiektuaren babesleak

Lea-Artibaiko Plan Estrategikoak, kontseiluaren arabera lan egiten duten gainontzeko proiektu pilotuak bezala, hiru zutabetan oinarritzen da:

- X Udal ordezkariak
- X Gizarte eragileen ordezkariak
- X Euskaingintzako ordezkariak

Hauek dira Jarraipen Batzordeak osatzen dituztenak herrietan eta prozesu osoaren atzean daudenak.

Gizarte eragileak dira plangintzaren protagonista nagusiak, eurak eta euren begira diseinatu eta aurrera eramandako lana delako. Euren parte hartzea bermatzea, funtsezkoa ikusten da prozesuaren osasun onerako.

Udal ordezkariak, alde politikoaren laguntza adierazten du eta finantziatorako iturria. Ez da ahaztu behar gainera, arduradun politikoen ordezkariak zabala eta anitza izateak, politizazioaren mamua uxatzen duela.

Bai Euskarari Plan Estrategiko honen hirugarren babeslea, euskaingintza taldeak dira. Beraien lan-gaia euskera eta euskal kultura izanda, ezin ziren hau bezalako prozesu batetik kanpo geratu. Ez da ahaztu behar gainera, epe luzeagora Euskal Herri mailan aplikatu nahi bada proiektu estrategikoa, euskaingintzan dihardutela Euskal Herri osora hedatzen diren instituzioetako batzuk; adibidez AEK.

Lea-Artibaiko kasuan, proiektua babesten dutenak hurrengoak dira:

babesleak	Kopurua	Herriak
Udal ordezkariak	3 alderdi politiko (indep, EH, EA)	8 herri
Gizarte eragileak	207	11, guztiak
Euskaingintzako elkarteak	4	4 herritik

1.2.2.-Baliabide materialak

Proiektuaren finantzazioa, udalen bitartez egiten da; udal bakoitzak bere aportazio proportzionala egiten du. Ez da eskatzen dirurik udalaz kanpoko beste erakundeei (Foru Aldundia, mankomunidadeak...).

Lea-Artibairen kasuan, finantziazio iturri diren udalak, hurrengoak dira

Udala	Kopurua eurotan
Ondarroa	40.000
Munitibar	3.606
Aulesti	3.606
Gizaburuaga	900
Amoroto	1.800
Lekeitio	15.025
	64.937

Diru kopuru honen kalkulua egiteko aurreikusi zen 400 eragile izanda zenbat diru beharko zen Inprimaketa gastuetarako, posta gastuetarako, kontseiluak eskaini behar zituen lanordua finantzatzeko, aholkularitza eta formakuntzarako lanordua ordaintzeko eta batez ere beharko ziren teknikariei ordaintzeko.

Proiektuan dirurik ipintzeko konpromisorik adierazi ez duten udalak hurrengoak dira.

Udala		
Ispaster	Markina-Xemein	
Mendexa	Etxebarri	Berriatu

Dena den, azken hilabeteetan ahoz adierazitakoaren arabera, badirudi hortik baten batek proiektua ekonomikoki laguntzea aurrerantzean.

Diruaz aparte, Lea-ArtiBAI EUSKERARIko partaideen baliabide materialak, hurrengo zerrendan agertzen dira:


- Ú ordenagailua, 2 helbide elektronikorekin
- Ú Markinako AEK euskaltegiko gela bat
- Ú 3 telefono
- Ú Markinako udalaren Kultur Aretoa Talde Eragilearen bilerak egin ahal izateko.
- Ú Ondarroako udalaren hitzaldi aretoa
- Ú Markinan kokatuta dagoen Lea-Artibaiko Teknik ikastetxearen lokalak, Jarraipen Batzordearen bilerak egin ahal izateko.

1.2.3.-Baliabide pertsonalak

Hasiera batean Lea-Artibaiko Bai Euskerari Plan Estrategikoaren egitura diseinatzerako orduan, 5 lantalde martxan jartzea aurreikusten zen. 4 talde, lanean hasita daude, baina komunikazio taldea, oraingoz, ez dago martxan. Taldeen gaur eguneko egitura, hau da:

Egitura	Partaide kopurua	Partaideen jatorrizko esparrua
Jarraipen Batzordea	15	Ekonomikoki laguntzen duten udalak 5. Merkataritzaren ordezkari 1 Kontseiluaren ordezkari 1 Euskalgintzaren ordezkari 1 AEK Ikastetxeetako ordezkariak 2 Enpresen ordezkariak 2 Lea-artiBAI EUSKARARIren ordezkari 1 Idazkaria
Adituen Taldeko kideak	16	Enpresa pribatuko teknikariak 4 IVAP 1 Administrazioko teknikariak 8 Irakasleak 2 Soziologoa 1
Talde Eragilea	13	Lea- ArtiBAI EUSKERARI 3 kide Solaskidea Udaletako ordezkariak 7 (herri txikietako euskalgintzaren ordezkari modura) EMUN 1 Enpresak 1 Euskalgintza 1
Euskalgintza LEA-ARTIBAI	40	Ikastetxeak 12 Udaletako partaideak 5 Alderdi politikoak 3 EHE 5 AEK 3 Herri komunikabideak 3 Euskera elkarteak 1 Denbora libreko taldea 1 Lea-Artibai EUSKARARI 3 UEMA Banakoak 2
GUZTIRA	84	


Lea-Artibaiko Plan estrategikoaren azterketa kualitatiboa egiten badugu, ikusiko dugu bere partaideen jatorria zein den:



- ⊗ Partaideen %36a administrazio publikoko langileak, alderdien ordezkariak eta zelan edo hala herrietako dinamika politiko-instituzionalarekin zerikusia dutenak.
- ⊗ %18ak, euskeraren munduarekin lotzen du gehien bat bere jardura: AEK, EHE, euskera elkarteak eta hemen sartzen dira baita komunikabideetako ordezkariak.
- ⊗ %21ak hezkuntza munduan txertatzen da; bai eskoletako ordezkari moduan zein guraso elkarteetako partaide izanda.
- ⊗ Enpresa pribatuarekin harremana dutenak: merkatariak, kooperatibetakoak...%8a.
- ⊗ Lea-ArtiBAI EUSKERARIko partaideak, %7a dira. Hemen kokatzen dira eguneroko kudeaketa daramaten teknikariak.
- ⊗ Beste batzuetan sartzen dira %10a. Hemen kontatzen dira banakoak, batzordeetako idazkariak eta kontseiluko ordezkariak

1.2.3.1.-Lan Taldeen eskema, funtzioak eta dinamika

Urtarrilaren 2ko bileran erabakitakoaren arabera, plan estrategikoko lan taldeek, funtzionamendurako eskema hau jarraituko dute



1.2.3.2.-Kudeaketako arduradunak

Hauetatik guztietatik, Planaren kudeaketa zuzenaren ardura dutenak, Lea-Artibai EUSKERARIko titulupean sartutakoak dira.

Lea-Artibai EUSKERARIk, 3 pertsona kontratatu zituen Planaren arlo teknikoa garatzeko. Pertsona hauek, egun erdiz ari dira. Euren zereginen artean, bileren prestaketa, koordinazioa eta zuzendaritza daude, planaren diagnosia, koordinaketa, Talde Eragilearen erabakiak betetzeaz arduratzea eta jarraipena daude.

Lea-ArtiBAI EUSKARARIko partaideak, euskalduntze alfabetatzetik datoz pertsona 2ren kasuan eta bestea soziolinguistika ikasketan egiten ari da. Guztiak ere, prestakuntza espezifikoa hartu dute Lea-Artibai EUSKERARIren partaide izateko.

1.3.-Proiektuaren abiarazleak

Lea-ArtiBAI EUSKERARIko partaideek diotenez, proiektua Kontseiluaren proposamena izan zen. Hasierako proposamen honetan dei egiten zitzaion alde batetik eskualdeko euskalgintzari, proiektuaren pisu nagusia eraman zezan eta beste alde batetik, udaletako ordezkari politikoei, proiektuaren finantziazioa ziurtatzeko.

1.4.-Euskalgintzaren funtzionamendua eskualdean

Lea-Artibai EUSKERARIko partaideen esanetan, eskualdeko euskalgintzaren funtzionamendu kaxkarrak, eragin handia izan du planaren ondorengo ibilbidean:

- ❖ Planaren sozializazioa egitea herrietako euskalgintza elkarteei zegokion, eta ondorioz, jendeak ez daki euskeraren plan estrategiko baten sartua dagoela eskualdea.
- ❖ Euskalgintzaren funtzionamendu txarraren ondorioz, aurrez egin beharreko zenbait zeregin ez ziren ondo egin, besteak beste gizarte eragileak markatzearen zeregina zuen eta ez zuen bete orokorrean; ondorioz, euskalgintzak izan behar zuen Planaren Lidergotza papera ez zuen bete eta Lea-Artibai EUSKERARIko teknikarien betebeharra bihurtu da.
- ❖ Eskualdeko euskalgintzak, ez du motorea izatearen zentzua Lea-Artibain.

1.5.-Oztopo burokratikoak

Zenbait udalek hasieratik esan zuten ezetz Plan estrategikoan sartzeari. Arrazoi praktikoak argudiatuz (Lea-Artibaiko Mankomunazgoaren Planaren balizko aplikazioaren zain zeudela) udal garrantzitsu batzuk uko egin zioten Plan Estrategikoaren finantziazioari. Horren azpian benetan gertatzen zena alderdi politikoen arteko kontuak ziren: lehen esan bezala, eskualdeko udalak EAJ, EH (gaur egun Batasuna) eta independenteen eskuetan daude. EAJkoak ez zeuden Plan Estrategikoaren alde eta Batasunakoak bai (salbuespenak albuespen), eta independenteak batzuetan era batera lerratu ziren eta besteetan bestera.

1.6.-Gizarte eragileak

Gizarte eragileen aldetik, plan Estrategikoei buruzko ezezagutza handia zegoen; gizarte eragileek ez zeukaten informaziorik, ez zekiten zer zen Plangintza Estrategiko bat, eta ez zekiten zertarako balio zuen.

Zerbait zekitenen artean, nahastea zen nagusi. Eskualdean eta nazio mailan aurrez egon diren esperientzia eta mugimenduen entzutea, bazuten batzuk, baina normalean, nahastu egiten zuten Bai Euskarari kanpaina, UEMAren zereginak eta Lea-Artibaiko mankomunitateak diseinatu eta aurrera eraman ez zuen Plana.

1.7.-Aholkularitza

Lea-Artibaiko Plan Estrategikoa aurrera eraman ahal izateko, teknikarien prestakuntzaz gain, aholkularitza zerbitzua ere aurreikusten zen. Aholkularitza hau, alde bitik etorri behar zen: Kontseiluaren aldetik eta EMUN enpresatik.

Kontseiluatik jaso beharreko aholkularitzak ez duela funtzionatzen diote Lea-Artibai EUSKERARIko teknikariek.

EMUNek eskaintzen duen aholkularitzak, ostera ondo funtzionatzen duela diote.

Era berean, Lea-Artibai eskualdean Plan estrategikoa daramaten teknikariek, behar-beharrezkoa jotzen dute aholkularitza zerbitzua.

1.8.-Gizarte eragileak lortzeko estrategia

Orain arte ikusitakoaren arabera, argi dago Plan Estrategikoaren pisurik handiena, ia osoa Plan estrategiko horren kudeaketan ari diren teknikarien eskuetan jausten dela. Atal honetan, orain arteko lana burutzeko jarraitu dituzten estrategiak eta bakoitzaren iritzia ikusiko ditugu planaren nondik norakoari buruz.

Gorago esan bezala, gizarte eragileengana jotzeko zeregina herrietako euskalgintzaren eskuetan behar zuen izan; hala ere, eskualdeko euskalgintzaren funtzionamendu kaxkarraren eraginez, kudeaketa taldearen eskuan geratu izan da zeregin hau.

Jarraitutako estrategia hurrengoa izan da:

- ❖ Udaletan eta erakundeetako informazioa erabiliz, eskualdeko eragile sozialen zerrenda osatu. Guztira 425 izen agertzen ziren zerrenda horretan.
- ❖ Guztiei, Kontseiluaren informazio bidali; hain zuzen ere Bai euskerari Akordioa eta Jarraipen Batzordearen aldetik aurkezpenerako eta planean parte hartzeko gonbitea.
- ❖ Telefonoz deitu guztiei, ahozko azalpena eman ahal izateko.
- ❖ Interesa agertzen zutenekin batu eta pertsonalki azaldu zer den eta zer suposatuko duen horrelako erabaki batek.

Harreman pertsonalak eragileekin izatearen lan mardul horretatik ateratako esperientziak, hurrengo puntuetan laburbiltzen dituzte:

- Ú Lan taldeko pertsona 2, euskalduntze-alfabetatze mundutik etortzeak onerako eta txarrerako, eragina du: AEK, euskera munduarekin identifikatzen du jendeak, baina baita politikaren araberrako nahaste ideologikoa sortu ere.
- Ú Kanpotarrak izanez gero, gizarte eragileak ez du erreferentziarik eta neutrotasuna da nagusi. Kanpotar izate honek eragina du herriko euskalgintzarengan ere: inplikazio eta erantzukizun handiagoa dago euskalgintzaren aldetik bere lana egiterako orduan Lea-artiBAI EUSKERARIko teknikariek ez direnean herri horretakoak.
- Ú Uste dute, naiz eta hemen ez dauden guztiak ados, gaztea izateak eragina duela eta batzuetan gutxietsita sentitu direla arrazoi horregatik.
- Ú Neska eta ama izateak ez duela suposatzen euskararen plan estrategikoan sartu behar duen eragilearengan inolako eraginik pentsatzen dute.
- Ú Udala eta erakunde publikoen irudia erabili ahal izan duten herrietan, seriotasun irudi handiagoa ematea lortu dutela uste dute.
- Ú Kontseiluaren izenean joateak ere laguntzen du prestigioa lortzen eta proiektuaren seriotasuna adierazten du, nahiz eta beste batzuetan, diru-eske joatearen mamua ere agertu izan den.

2.- EUSKERA BIZIBERRITZEKO PLANAREN APLIKAZIOA GOI NERBIOI ESKUALDEAN

2.1.-Alderdi metodologikoak

2.1.1.-Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia: oinarri teorikoak

Bai Euskerari akordioaren ondoren sortutako plangintza estrategikoak, esan dugu gizarte eragileetan oinarritzen direla euskeraren berreskurapenerako prozesuan. Euskera Biziberritzeko Plan Nagusiaren ildotik sortutakoak ostera, kutsu instituzionala izango dute batez ere.

Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia, euskeraren Aholku Batzordeak, 1998ko ekainaren 24ko Batzorde Osoaren bileran onartutakoaren ondoriozko ahalegina da.

Aholku Batzordearen akordio honetan, planaren aurkezpena eta garapen ildoak azaltzerako orduan, honela esaten da modu literalean:

"III.EUSKERA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

Euskera Biziberritzeko plan nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntz-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna:

--.....

--.....

--azkenik, herri erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta euskalgintzan diharduten bestelako enpresa eta herri-elkarteekiko harremana bideratzeko.

..... Beraz, Plan honek Eusko jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren ildo nagusiak erabakitzeko, foru-aldundiek eta udalek bideratu ohi duten euskeraren aldeko sustapen politika gidatzeko eta euskalgintzan diharduten elkarte, talde eta erakundeekiko elkarlana bideratzeko oinarritzko erreferentzia eta tresna izan nahi du."

(Azpimarratutakoa, nireak da). Guzti honetatik pare bat kontu azaleratu nahi nituzke:

Æ Euskera Biziberritzeko Plan hau, herri agintarientzat (administrazioa) egiten dela eta orokorrean administraziotik, hizkuntza politika bideratu behar duenarentzat.

Æ Herri elkarteekin eta euskalgintzan diharduten erakundeekin elkarlana onartzen da, baina ez ditu elkarte hauek eta administrazioa plano berdinean kokatzen

Honetaz aparte, Euskera Biziberritzeko Plan Nagusiaren iturri ideologikoak, batez ere Fishman eta Txepetx direla uste dut, nahiz eta Kontseiluaren aldean, beste puntu batzuetan egin indarra.

K Fishman

EBPNk, Fishmanen berreskurapenerako mailak hartu eta moldatzen ditu eta horren arabera, ingurune bakoitzeko ezaugarrien arabera lehentasunak proposatzen ditu.

Fishmanen aldean, garrantzia handia ematen zaio irakaskuntzari eta orokorrean administrazioarekin harremana izan ahal duten esparruetan lan egiteari: hezkuntza, aisialdi antolatua, kirola, teknologia...lehentasun maila txikiagoa jartzen du erlijioa, familian eta esparru sozio-ekonomikoan.

K Txepetx

Oinarrizko erreferentzia dira Txepetxen zenbait ideia. EBPnk adierazten du , EAEko hizkuntza politikak eman duen saltoa.; lehen aldiz, erabilerari ezagutzari baino inportantzia handiagoa ematen zaio.

2.1.2.-Lehentasunak

Euskeraren Aholku Batzordearen EUSKERA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN ildo nagusietan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Hizkuntza Normalkuntzarako Plan Nagusia diseinatu zuen (hau ere, EUSKERA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA deitutakoa baina hemen EBPn moduan ipiniko duguna, Aholku Batzordearen 1998ko ekaineko batzarrean erabakitakoarengandik ezberdintzeko)

EBPNk , erroldako datuak hartuz (populazioa eta ezagutza datuak), 10 eredutan banatzen ditu EAEko herriak (5.000 biztanletik gorako herritarako egiten du proposamena HPSk) eta horren arabera, lan egiteko lehentasunak proposatzen ditu.

Udalerrien banaketa hurrengoa da:

Euskaldunen portzentajea	Biztanleak		Hiriburuak		
	5.000-10.000	10.000			
<%15	<u>A1</u>	A2	Bilbo	Donostia	Gasteiz
%15<>%50	B1	B2			
%50<>%70	C1	C2			
>%70	D				

Eredu bakoitzaren arabera definitu zituen Hizkuntza Politikarako Sailordetzak jorratu beharreko lehentasunak eta helburuak. Lehentasunez jorratu beharrekoa esparruak, hurrengoak dira:

JARDUERAK	A1	A2	B1	B2	C1	C2	D	DONOS.	BILBO	GAST.
IRAKASKUNTZA										
EUSKALDUNT.										
FAMILIA										
ADMINISTRAZ.										
TEKNOLOGIA										
LANA										
AISIA										
KIROLA										
ERLIJIOA										
CORPUSA										
KOMUNIKAB.										
LIBURUGINTZA										
PUBLIZITATEA										
KULTURGINTZA										

Sarrera luze honen ondoren, Goi Nerbioin, lehentasunak jartzeko jarraitutako irizpideak argiago ikusteko moduan gaude.

Esan bezala, EBPnren aplikazioa momentuz, 5.000 biztanletik gorako herrietarako pentsatua bada ere, Goi Nerbioin, erreferentzia modura hartu izan dugu gure lanak bideratzen laguntzeko. Horrek ez du esan nahi, gure ezaugarrien arabera moldaketak egin izan ez ditugunik.

Goi Nerbioiko herriek, EBPnren arabera ere duen, honela kokatuko lirateke

	Biztanleak 1996	Ezagutza maila	EBPNren arabera ere duen
Ugao	4.098	%39	B1
Orozko	1.851	%63	C1
Zeberio	882	%89.8	D

Horren arabera eta gure ezaugarriak kontuan hartuz, gure lehentasunezko jardunak definitzerako orduan, hurrengo esparruak aukeratu izan ditugu:

JARDUERAK	OROZKO	ZEBERIO	UGAO
IRAKASKUNTZA			
GAZTERIA.			
HIZKUNTZA TRANSMISIOA			
ADMINISTRAZ.			
KULTURGINTZA			
KIROLA/ AISIA			
ZERBITZU SEKTOREA			

Lehentasunen aukeraketarako kontuan hartu izan diren faktore biak , herriaren ezaugarriak eta planean parte hartzen duen jendearen baliabide eskasia dira (batez ere dedikazio orduak).

2.1.3.-Helburuak

Goi Nerbioiko plangintzaren helburuak, EBPNren berberak dira. EBPNren helburu hauek, Euskeraren Aholku Batzordearen 1998ko ekainaren 24 batzorde osoaren bileran aho batez onetsi ziren eta ondoren, Eusko Jaurlaritzak, 1998ko uztailaren 28ko Gobernu Batzordeak onartu zituen eta ondorengoak dira:

Helburu nagusia:

"...Euskera Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskeraren berreskurapen osoa lortzeko euskeraren aldeko urratsak areagotzea."

Helburu estrategikoak:

"...euskera,() ondorengoetaratzea."

"..euskeraren erabilera: euskeraren aldeko auzogintza eta zerbitzugintza"

"...euskeraren elikadura"

Helburu zehatzak:

Helburu estrategikoan barruan, datozen hamar urteetarako helburu zehatzen definizioa egiten da esparru ezberdinetan.

2.1.4.-Denbormalizazioa: Goi Nerbioi eskualdean

		Uda	Udazkena	negua	udaberria	Uda	Udazkena	negua	udaberria	Uda	Udazkena	negua	udaberria	Uda	Udazkena
		2000		2001				2002				2003			
Plan estrategikoa	Diagnosia egin	X													
	Plangintzaren helburuak eta lehentasunak definitu		X												
administrazioa	Planaren bideragarritasun txostenaren azterketa			X											
	AEBEMETen aplikazioa				X	X									
	Lehen urterako plana					X									
	Jarraipena/ebaluazioa/bigarren urteko plana										X	X			X
Ume eta gazteak	Eskolekin elkarlana		X												
	Gurasoentzako sentsibilizazioa			X		x		x		x		x		x	
	Gaztekin zuzeneko lana					X			x	x		x		x	
Zerbitzu sektorea	Merkataritza eta zerbitzu sektorearen egoeraren azterketa/jarraipena			x	x						x	x			x
	Merkataritzan erabilera indartzeko ahaleginak				x		x	x				x	x		
	Erosleengan erab sustatzea						x	x			x				x
kulturgintza	Euskal kultura ezagutzera ematea		x		x		x		x		x		x		x

Kronograma honetan agertzen dira Goi Nerbioiko herrietako euskera zerbitzuaren ahaleginen denboralizazioa. Ahalegin hauek, hiru herrietan, ardatz berdinak jarraitzen dituzte (beti eragiten da esparru berdinetan, lehentasunetan erabakitakoaren arabera) baina jokatzeko era eta antolakuntza herri bakoitzaren ezaugarrien arabera da; hau da, kontuan izaten da herriaren tamaina, azpiegitura, hiztunen tipologia, ezagutza maila.... aurrera eraman nahi diren proiektuak diseinatzeko orduan, horrela, herri bakoitzean helburu zehatzak aldatzen joaten dira:

Herria	Lehenetsitako esparrua	Helburu zehatzak	azalpena
Orozko	Zerbitzu sektorea	Euskeraren erabilera sustatzea zerbitzu sektorean	Gaur egun ez ohitura asko galduta dago
	Gazteria	12-16 urte arteko gazteetan erabilera sustatzea	Herrian eskola sasoia amaitzen duten gazteengan eragitea
	Hizkuntza transmisioa	Gurasoengan eragitea	Guraso gazte ugari dago, tipologia ezberdinekoak
	administrazioa	Euskarazko zerbitzua bermatzea eta lana euskeraz egiten hastea	Ez da ziurtatzen euskerazko zerbitzua udalaren aldetik
	Kulturgintza	Euskerazko kultura ezagutaraztea	Erdaldunei zuzenduta batez ere.

Herria	Lehenetsitako esparrua	Helburu zehatzak	azalpena
Ugao	Zerbitzu sektorea	Merkataritza eta hirugarren sektorean, erabilera sustatzea	Merkatari tipologia ugari dago hizkuntzari dagokionez eta bakoitzarentzat egokien den helburuak finkatu eta egitasmoak aurrera eramateko ahalegina egiten da.
	Gazteria	Euskeraren mundura erakartzea	Gazteria nahiko urrun dago euskeraren kontuetatik
	Hizkuntza transmisioa	Gurasoengan umeen aldetik euskerazko irakaskuntza sustatzea guraso erdaldunen kasuan eta euskaldunentzat, erabilera sustatzea seme-alabekin	Tipologia ugari da eta sentsibilizazio ekintzekin batez ere, bakoitzarentzat egokiak diren mezuak zabaltzeko ahalegina egiten da
	administrazioa	Euskerazko zerbitzua bermatzea eta euskeraz lan egiten hastea	Ez da ziurtatzen euskerazko zerbitzua udalaren aldetik
	Kulturgintza	Euskal kultura ezagutaraztea	Erdaldun ugari dago eta bi hizkuntz komunitateen arteko ezezagutza handia (alde batekoa jakina)
	irakaskuntza	Eskolan erabilera plana aurrera eramaten laguntzea	Eskolako planean laguntzea, hizkuntzaren transmisioarekin lotuta dago

Herria	Lehenetsitako esparrua	Helburu zehatzak	azalpena
Zeberio	Zerbitzu sektorea	Merkataritza eta hirugarren sektorean, erabilera sustatzea	
	Gazteria	Euskeraren erabilera ez galtzea	Batez ere euskerak eskaintzen duena erakutsita
	Hizkuntza transmisioa	Erabilera sustatzea	Umeekin, gurasoen artean, animatu erabiltzera
	administrazioa	Euskeraz lan egitea	Ahal den neurrian, euskeraz lan egiten hastea
	Kulturgintza	Herriko aberastasun kulturala ezagutaraztea	Herriko euskeraren prestigioa goratzea, beste toki batzuetako bizkaiera eta batuaren artean kendu dioten hizkuntza statusa berreskuratzea
	irakaskuntza	Eskolarekin lan egitea, ume eta gurasoen erabilera sustatze aldera	Ekintza bateratuak egiten dira

2.1.5.-jarraipena eta ebaluazioa

Ebaluazioa egiteko modua ezberdina da aztertu nahi den aspektuaren arabera.

Administrazioko jarduna ebaluatzerako orduan, AEBEMET metodologiaren arabera egiten da; administrazioaren egoera osoa, tresna informatikoan sartuta dago eta jarraipena egiten denean, egoera berriaren datuak sartzen dira. Tresna informatikoak berak kontabilizatu eta esaten digu portzentajeetan, zer nolako jauzia egin izan den administrazio horretan euskeraren normalizazioan.

Datuon jarraipenaren ostean, horren irakurketa egiten da: udal bakoitzeko jarraipen taldeak (kultura batzordea), datuak aztertu eta baloratu egiten ditu eta horren arabera, hurrengo urterako proposatu beharrekoak proposatzen ditu.

Ume eta gazteei zuzendutako ekintza guztien balorazioa egitea askoz zailagoa izaten da; urteroko lana globalean ez da baloratzen, baizik eta ekintza bakoitza; hau batzuetan erraza da; adibidez gazteei zuzendutako tailerrak antolatzerako

orduan, tailerretako monitoreak eta bertan ibili diren gazteen iritzia jasotzen da, baina beste batzuetan, iritzia jakitea askoz zailagoa da, adibidez, eskola umeen gurasoei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak burutzen direnean; kasu horietan, balorazio eskolen bitartez egiten da gurasoek irakasleei esandakoaren gainean eta abar.

Merkataritzako balorazioa, udalekin hitzarmena sinatutako establezimenduetako nagusi eta langileei galdeketa laburrak egitea izaten da. Hortik, iritzi orokor bat ateratzen da, nahiz eta ez oso zehatza eta ezta ere oso objektiboa.

Kulturgintza, hau da euskera ez dakiten eta euskal mundutik urrutiti dabilen jendearen arreta erakartzeko egiten diren saioen balorazioa, normalean, udaleko langileen bitartez egiten da; langile hauek, herritarrekin kontaktu zuzena eta ohikoa dutenez, aprobeztatzen dira zer komentatu izan den jakiteko.

2.2.-Proiektuaren baliabideak

Lea-Artibaiko Planaren deskribapena egin dugunean bezala, puntu honetan, parte hartzaile eta baldintza materialez arituko gara.

2.2.1.-Proiektuaren babesleak

Goi Nerbioin, EBPnren aplikazio txiki hau egiteko orduan, babesleak, instituzioak izan dira; zehazki, agintean dagoen alderdiko kultura zinegotzia

Gainontzeko alderdietako zinegotziak, kultura batzordean daudenean parte hartu izan dute eta udal barruko planaren diseinuan, batez ere udal politika definitzera begirako irizpideak lantzeko orduan, parte hartze zuzena eta handia izan zuten, baina hortik aparte, ez dira asko inplikatu.

Goi Nerbioiko herrietan, ia ez dago euskalgintzarik. Euskalgintza kontsideratzen badugu euskera lan-gai nagusi duen elkarte edo erakundea, bakarra dago; hiru pertsonak osatzen dute, aldizkaria ateratzen dute urtaro bakoitzean eta bertso saioa antolatu; hortik aparte, euskal kulturaren zenbait aspekturi lotutako taldeak daude: dantza taldea, etnografia taldea eta abar.

Goi Nerbioin, bilatu izan da euskal kultura ardatz duten talde hauekin elkarlana; kirol taldeekin bezala, baina zaila gertatu da; eguneroko bizitzaren dinamikak, gero eta denbora gutxiago lagatzen du militantismoz egiten diren gauzetarako.

Beste alde batetik, esan behar da babesle moralak bai aurkitu direla; inork ez du jarri oztoporik, inork ez du esan txarto dagoela euskera sustatzea eta beste leku batzuetan ikusi ahal diren jarrera negatiborik ez da egon. Dena den honek, ere gogoetarako aukera eman du eta zenbait aldetik, pasotismoa dela esan izan da; zeozer interesatzen ez denean, ez da beretaz iritzirik ere botatzen.

2.2.2.-Baliabide materialak

Finantzazioa, erabat publikoa da. Udal bakoitzak teknikaria kontratatzen du asteen egun bat edo bi eta udalaren aurrekontuetatik ateratzen da dirua; horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzetan, pertsonalaren mantentzeagatiko dirulaguntzak banatzen dira eta hortik ere beharrezko denaren zati bat jasotzen da.

Proiektu eta egitasmoak aurrera eramateko, udalaren finantziazioaren bermea izaten da, hala ere beti jasotzen da Bizkaiko Foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza deialdietatik ere zeozer.

Ugao, Orozko eta Zeberio euskera teknikariak dituen baliabide materialak, hurrengoak dira:

- ❖ Herri bakoitzean ordenagailu bat
- ❖ Udalak eskaini ahal duen bulego tresneria guztia

2.2.3.-Baliabide pertsonalak

Goi Nerbioiko herrietan, teknikari bakarra dago hiru herriei zerbitzua eskaintzeko. Zerbitzu hori, herrika eta asteko egunka hurrengo modu honetan banatzen da:

Eguna	Herria	Dedikazioa
Astelehena	Ugao	%20
Asteartea	Ugao	%20
Asteazkena	-	-
Osteguna	Orozko	%20
Ostirala	Zeberio	%20

Planaren hasieran, beste udal bi ere bazeuden Goi Nerbioiko plan estrategikoan sartuta, baina oinarrizko puntuetan adostasunik lortu ez zenez, zerbitzu bertan behera geratu zen 2001ean.

Esan behar da baita, Udalak, ez daudela mankomunatuta, baizik eta kontratuak banatuak daudela; hau da asteko egun bakoitzerako kontratua dago.

Hemendik aparte, ezin esan egitura finkorik eta lantalderik dagoenik; egitasmoa, erabat instituzionala da eta teknikariaren babes bakarra, dagokion kultura zinegotzia da.

2.3.-Proiektuaren abiarazleak

Proiektuaren abiaburuan, Hizkuntza Politikarako Sailordetza dago. HPSko udaletako euskera planetarako arduradunak, herri hauetako zinegotziei luzatzen zien ideia, hauei gustatu eta horren ostean, teknikaria kontratatzeko prozesua zabaldu zen.

2.4.-Euskalgintzaren funtzionamendua

Lehen esan bezala, euskalgintzako talderik ez dago; hala ere, noizean behin eta gauza püntualetarako, euskal kulturaz arduratutako taldeekin eta eskolekin proiektu komunak eramaten dira aurrera.

2.5.-Gizarte eragileak

Gizarte eragileek ez dute ezelako zerikusirik EBPNren aplikazio honetan.

2.6.-Aholkularitza

Aholkularitza, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eskaintzen du eta hortik aparte, beste udal batzuetako teknikariek ere beti egoten dira laguntzeko prest; adibidez, arazoak zelan konpondu edota proiektu jakin baten eraginkortasuna indartzeko zer egin esateko orduan.

2.7.- Gizarte eragileekin elkarlana

Goi Nerbioiko teknikariaren lana, gehien bat, bulego lana izaten da; egin beharreko egitasmoak eta jarraitu beharreko ildoak aurrez diseinatuta egoten da eta proiektuen kudeaketa geratzen da; hau batik bat, telefono bidez egiten da; ez da izaten gazte eta umeekin kontaktu pertsonalik

Kontseiluaren Plan Estrategikoa aurrera eraman ahal izateko garrantzia berezia dute eragile sozialek, baina EBPNren araberako plangintzetan, gizarte eragileen papera, administrazioetik diseinatutako egitasmoetan parte hartu edo laguntzea izaten da.

Goi Nerbioiko Planean gizarte eragileen partaidetza, honetara mugatzen da: teknikariak diseinatutako egitasmo eta ahaleginetan laguntzeko eskatzen zaio; batez ere eskola, kirol elkarte eta udalei zerbitzua eskaintzen dizkien enpresekin egin izan da lana, eta beti ere helburu moduan izan da herriko gazte eta umei euskerazko zerbitzua bermatzea eta lehenestea ahal den neurrian eragile sozial horiekin harremanak dituztenean, horretarako, irizpideak

lantzeaz gain, laguntza eskaini zaie behar duten edozein gauzatarako. (barrura begirako erabilera plan txikiak diseinatu eta aurrera eramaten lagundu kasurik gehienetan)

Horrez gain, teknikariak lanpostuaren ezaugarriak eta ezaugarri pertsonalek izan dezaketen eragina plangintzaren etorkizunean, hurrengo puntuak azpimarra daitezke:

- ❖ Goi Nerbioin, euskera ez da gauza eroso; ez da interesatzen edo kontraesana sortzen du pertsonaren eguneroko jardunaren eta jarreraren artean.
- ❖ Horren ondorioz edo, teknikaria ezezaguna izateagatik, talde politikoen inguruko kultur taldeak, kirol elkarteak, aisialdi taldeak, merkatariak eta abar, ez dira eroso sentitzen euskerari buruzko dinamikak planteatzen direnean.
- ❖ Gizonezkoa izateak, laguntzen duela uste du bileretan eta eguneroko harremanetan, seriotasun itxura ematen du.
- ❖ Udalaren izenean joateak edozein lekutan errazten ditu gauzak, eta arduradun politikoei Eusko Jaurlaritzaren edo Foru Aldundiaren izena aipatzeak, errespetua sortzen die; gutxienez euskera kontuetan.

Hirugarren zatia: PLANGINTZEN AZTERKETA ETA KONPARAZIOAK

1.-PLANGINTZEN APLIKAZIOKO MAILA SISTEMIKOA

- 1.1.-Lea-Artibaiko Plan Estrategikoaren maila sistemikoa
- 1.2.-Goi Nerbioiko planaren maila sistemikoa


2.-ERKAKETARAKO MARKO DESKRIPTIBOA

- 2.1.-Zer nahi da?
- 2.2.- Non bilatu hizkuntza aldaketa?
- 2.3.-Zertarako bilatu hizkuntza aldaketa?
- 2.4.-Nork egin behar du aldaketa hori?
 - 2.4.1.-Plangintzaren beste sustatzaile batzuk: arduradun politikoak
- 2.5.-Zelan lortu hizkuntza normalkuntza premiak erakunde barruan txertatzea?
 - 2.5.1.-Norentzat diseinatzen da plangintza?
 - 2.5.2.-Zelan jakinarazi: komunikazioa
 - 2.5.3.- Ze emaitza lortu nahi da?

Sarreran esan den moduan, lanaren helburua Lea-Artibaiko BAI EUSKARARI eta Goi Nerbioiko Plangintzaren arteko konparaketa egitea da. Erkaketa hau egiteko hartzen den ikuspuntua, modelo sistemikoa da. Bilatzen dena , hurrengoa da: J. Inazio Markok, 2001eko irailean, Salamancan egin ziren espainiar soziologiaren VII kongresuan egindako proposamenean oinarrituta, aipatu plangintza biak neurtzea.

Salamancako kongresuan, J. Inazio Markok, alde batetik, normalizazio ekintzak burutzeko maila sistemikoak zedarritzeta bilatzen du eta bestetik, plangintzen azterketarako eta konparaziorako marko deskriptibo bat proposatzen du.

Hizkuntza prozesuetan eragiteko 6 maila sistemiko aipatzen ditu. Mailarik zehatzenetik orokorrenera, hurrengoak dira: banakoa, taldea, erakundea, sektorea, komunitatea eta ekosistema. Maila guzti hauek, piramide batean irudikatzen ditu:



Plangintzen azterketarako marko deskriptiboa hurrengo galdegaien inguruan antolatzen du: Zer, Non, Zertarako, Nork, Zelan eta Zeintzuk emaitza lortzeko.

Esan bezala gure erkaketa, puntu nagusi bi hauen inguruan izango da: alde batetik, plangintza biak neurtuko dira aplikazioko maila sistemikotik eta bestetik, plangintza bakoitzaren konparazioa egingo da 6 galdegai horien arabera.

1.-PLANGINTZEN APLIKAZIOKO MAILA SISTEMIKOA

Lea-Artibaiko Plan Estrategikoak "komunitatearen" mailan lan egiten du; eskualde osoan eragin nahi duelako denbora berean

1.1.-Lea-Artibaiko Plan Estrategikoaren maila sistemikoa

1. Lea-Artibaiko Plan Estrategikoak, komunitate mailan eragiten duenean, piramidean azpitik dauden mailatan ere eragin beharko luke. Ondorioz, programak diseinatu beharko lirateke komunitate horretan lan egiten duten sektoreetarako, erakundeetarako, taldeetarako eta norbanakoen hizkuntza aldaketa bultzatzeko programak ere egon beharko lirateke

1.1.- Sektoreetarako diseinatutako plangintzak egin beharko lirateke, kontuan izanda eskualdean sektore bakoitzak daukan inportantzia; nire ustez sektore horiek, zerbitzuak (Lekeitio) arrantza sektorea (Ondarroan) eta kautxuaren sektorea izango lirateke batez ere (lehentasunez landu beharrekoak). Sektorean eragiteko, bertan partaide direnen arteko mugimendu bateratuak bilatu beharko lirateke.

1.2.-Erakunde mailan eragin beharko litzateke, alde batetik gaur egun egiten den moduan erakunde bakoitzaren konpromisoa bilatuz eta laguntza eskainiz, baina baita indarra eginez, eskualdean oso esanguratsuak diren erakundeak hizkuntza normalkuntza planetan sartzeko, kasu honetan udalak eta eskualdeko enpresarik handienak aipatuko nituzke. Enpresa hauek, ez dira asko (3-4), baina 300-500 langile artean dituzte eta efektu biderkatzailea handia izan ahal dute, eurengandik bizi baitira hainbat enpresa txiki ere, batez ere kautxuaren sektorean. Horrez gain, enpresa handi hauetako batzuk kooperatibak dira, horrek esan nahi du, barruan ere indarra egiten ari diren pertsona eta taldeak egon ahal direla.

1.3.-Erakunde hauen barruan dauden taldeetan, interbentzio programak garatzea inportantea litzateke: , enpresetako gestio taldeetan kontzientziazio lana egitea inportantea litzateke (euskeraren inportantziaren inguruan, etorkizuneko hizkuntza eta abar), sektore bakoitzaren antolakuntza bideratzen duten kofradia, dendari elkarte eta abarrekin lana egin beharko litzateke: prestakuntza eskaini, gestio sistema modernoekin lotu hizkuntza; azken batean marketinga erabili hizkuntzaren produktua saltzeko.

Eta orain arte, sektore sozio-ekonomikoan aritu izan bagara ere, eskola umeen inguruan sortzen diren guraso talde informaletan eragiteko ahalegina egin beharko litzateke, herriren batetako gazteekin hizkuntzaren erabilerarako programak garatu eta abar.

1.4.-Banakakoentzat erraztasunak bilatu beharko lirateke: ordutegietara egokitutako prestakuntza, auto-ikaskuntza sistemak, trebatzea ahaleginak

- 2 Guzti horrek suposatzen du urte askotako lana eta baliabide ugari, bai pertsonalak zein diru baliabideak. Hau ez denez posible ikusten, nire ustez lehentasunez eragin beharreko sektoreak aukeratu beharko lirateke; hau da, gaur eguneko baldintzetan, ez du ematen komunitate osoan (eskualdean) era berean eta sektore guztietan eragin ahal denik, nahiz eta hori izan murgiltze metodoak agintzen duena. Lehentasunez landu beharreko sektoreak nire ustez, hurrengoak dira:

2.1.- Sektore sozio-ekonomikoak. Alde batetik, eskualdea nahiko gune naturala delako alde horretatik, Lea-Artibain lan egiten duena, bertan bizi da gehienbat, eta bestetik, Euskal Herriko eskualderik euskaldunena izanda (bai ezagutzaz zein erabileraz) eta alfabetatutako tasa handia izanda, ezinbesteko baldintzak eskaintzen dituelako behingoz euskera lana eta diruaren mundura sartzeko.

Beste alde batetik, uste dut eskualdearen erantzukizuna ere badela euskeraren aldeko pausu ausartak ematea.

2.2.-Hizkuntzaren transmisioa eta pertsonen arteko harreman informalak ere lehentasunez jorratu beharreko kontua ikusten dut; orokorrean, hizkuntzaren transmisioa ematen da Lea-Artibain, baina ziurtatu beharko litzateke aurrerantzean ere emango dela eta ematen den hori, kalitatea zainduz izan dadila. Era berean, adin talde jakin batzuetan eta lagun artean, hizkuntzaren erabilera, jaitsi egiten da eta jaitsiera hori, naturaltasunez bizi izatera ailegatzen da.

1.2.-Goi Nerbioiko planaren maila sistemikoa

Ø Goi Nerbioiko Plangintzak, "sektorea" deitutako maila sistemikoan lan egiten du.

1.- Sektorea baino goragoko maila sistemikoan ere eragin beharko litzateke; hau da Familia eta gazteria eta orokorrean hizkuntzaren transmisioa lehentasunez landu beharreko sektoretzat jotzen bada, guzti hori umea mugitzen den komunitate osoan aplikatu beharko litzateke, kasu honetan, ez bakarrik herriko eskola eta gurasoekin lan egin eta proiektuak garatu, baizik eta Arrigorriaga, Laudio, Basauri, Igorre eta ume eta gazteekin lan egiten duten beste zentroekin elkarlanean, gazte talde naturaletan interbentzio programak garatuz eta orokorrean, sektore bakoitzaren barruan dagoen komunitate osoan eraginez.

1.1.-Lehentasunez aukeratutako sektoreak goikoaz gain, esan dugu administrazioa, zerbitzu sektorea eta kulturgintza direla. Uste dut sektore sozio-ekonomikoak bizitzaren zati handia baldintzatzen duela; pertsonen arteko harremanetan izugarrizko eragina du, horregatik, garrantzitsua litzateke hemen ere programak garatzea. Dagoen arazorik handiena da lan mundua goi Nerbioin, "globalizatua" dagoela, ia ez du inork bizi den tokian lana egiten, baizik eta mugikortasun handia dago, ondorioz, komeniko litzateke ekosistemaren mailan ere eragitea.

1.2.-Lan munduan eragite honek baliabide gehiago jartzea eskatzen du eta urte askotarako; plangintza estrategikoek urteetako lana suposatzen dute, eta gainera egiten den ahalegin hau, lanaren komunitate maila guztian egin beharko litzateke batera.

2.- Lehentasunez aukeratutako sektore moduan hartu da hizkuntzaren transmisioa, eta hemen zeregina handia da, guraso, ume, gazte, eskola, denbora libreko guneak eta gainontzeko zerbitzuak euskerara erakarri beharko dira eta horretan inplikatu ahal diren baliabideak.

Beste aldetik, sentsibilizazio lan handia egin behar da maila guztietan baina batez ere ekosistema mailan, euskera ez dakienak, edota erabiltzen ez duenak zeozer galtzen duen sentsazioa izan behar du: legedia aldatu, sentsibilizazio saio handiak, buru instituzionalek adibidea ematea, gizarte mailan eredugarriak diren pertsonen inplikazioa...orokorrean, euskeren munduak, iraultza bat behar du eta iraultza hori ekosistema mailan ematen ez den artean, beheragoko mailetan eragitea gehiago kostako da.

2.-ERKAKETARAKO MARKO DESKRIPTIBOA

Lehen esan bezala, maila sistemikoaren arabera erkaketa egiteaz gain, bigarren zati honetan analisirako marko deskriptiboaren bost aspektuen arabera azterketa egingo dugu:

2.1.-Zer nahi da?

Bai Lea-Artibain eta baita Goi Nerbioin, pertsona talde eta elkarteek hizkuntza funtzionamendua aldatzea bilatzen da.

Hizkuntza aldaketa bilatzea, pertsonen ohiturak aldatzea bilatzea da azken batean. Horretarako, giza portaeran eragin behar da. Psikologiaren arabera, ohitura horiek aldatzeko, pertsonak estimulu bat behar du eta lortu ondoren errefortzatu egin behar da. Estimuluak era askotakoak izan ahal dira, baina nire ustez hurrengoak azpimarratzea inportantea da.

- Ø Estimulu ekonomikoak edo estimulu praktikoak: Batez ere sektore sozio-ekonomikoetan eragina izan ahal dute, Lea-Artibaiko sektore ekonomikoek ikusten badute eskualdeko euskerak, turistak erakartzeko balio duela edo produktuen kalitatean eragiten duela,, hizkuntza indartuko da. Era berean, Goi Nerbioiko merkatari eta tabernariak ikusten badute euskera kalitate eta zerbitzu hobea emateko eta ondorioz gehiago saltzeko balio duela, estimulu moduan funtzionatu ahal izango du. Esan behar da baita, motibazio praktikoa da eta motibazio motarik indartsuena honelako kontu batean.
- Ø Estimulu ideologikoak: Pertsona talde batetakoak sentitzen bada eta talde horren baloreen artean, hizkuntzaren erabilerarena bultzatzen bada, horrek ere erabilerarako estimulu moduan balioko du. Ondorioz, identitate etnolinguistikoak bultzatzen dituzten proiektuetan indarra ipintzea inportantea izan ahal da; eta estimulu mota honek balioa izan ahal du gazte eta gurasoei zuzentzerako orduan eta orokorrean hizkuntzaren transmisioaren kontuetan

Ohitura aldatetaz gain, lehen esan dugu, pertsona, elkarte eta taldeen funtzionamenduan aldatetaz sartzea da nahi den beste kontua: Horretarako erakutsi behar da euskera hizkuntza modernoa dela eta erakundearen funtzionamendurako abantailak izan ahal direla euskera erabilita.

Erakundeak aipatzen direnean, lehen ere esandakoa errepikatuz, Lea-Artibain enpresa handi eta esanguratsuen funtzionamendu hizkuntza aldatzeak efektu biderkatzailea izan ahal du eta Goi Nerbioin, udalak izan ahal dira funtzio hori bete ahal duten erakunderik garrantzitsuenak, batez ere herritarrekin kontaktu zuzena eta ohikoa dutelako eta harremanak zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresekin.

2.2.- Non bilatu hizkuntza aldaketa?

Onartuta, maila sistemiko guztietan eragitea litzatekeela bidea, gaur eguneko baldintzetan, Goi Nerbioin, aldaketa, erakundeetan eman behar da, baina ahal dela sektore bereko erakundeetan eta sektorearen ohiko harremanak garatzen diren gunean, hau da, Lekeitioko zerbitzuen sektorean hizkuntza aldaketak sustatzeko, zerbitzu hori eskaintzen duten erakundeetan lan egin beharko da, baina ahal dela ohiko harremanak izaten dituzten erakunde guztietan edo gehienetan batera. (gutxienez indartsuenetan eta esanguratsuenetan)

Horregatik, Goi Nerbioin merkataritza kanpaina martxan jartzen bada, herri osoan eragitean komeni da (gunea) eta sektorea egituratzen duten alde guztietan: saltzaile, langile, erosle, hornitzaileak eta abar

Horrez aparte, erakunde bakoitzaren barruan ere hizkuntzaren erabilera aurrera egiteak, aldaketak ekarri ahal ditu bere funtzionamenduan; euskera aldaketa positiboekin lotzea komeni da, hizkuntza modernoak, funtzionamendu erraztasunarekin bat egin behar du: adibidez, Lea-Artibaiko tailerretan langilerik gehienak euskaldunak dira, ondorioz, hizkuntzaren erabilera idatzia sustatzeko orduan, langileen parte hartzea sustatu ahal da tailerraren antolakuntzari buruzko ideiak emanda.

Erakundeek euren funtzionamendurako dituzten irizpideetan euskeraren presentzia sustatu behar da, bakoitzak bere neurrian: Lea-Artibain, irizpideetan exigentzia maila altuagoa izango da Goi Nerbioin baino, baina garrantzizkoa da lanerako hizkuntza eta hizkuntzaren baloreak kontuan hartzen hastea. Kontseiluaren Plan Estrategikoan, konpromisoak hartzen dituztenean eragile sozialek, hau lortzen ari gara. Bilatu beharko litzatekeena da konpromisoa maila benetan altuak hartzea.

Goi Nerbioin ostera, maila oso apalean lortzen da hau: hizkuntza, saltzaileak eskaintzen duen aukera da, baina ez inoiz erakundearen kalitatea handitzen duen balore bat eta ezta inportantzia handia ematen zaion faktore bat ere gainera ez dago sektorea bere osotasunean hartzen duen merkatarik elkarterik, ez daude antolatuta eta merkatarien "komunitatean" osotasunean eragitea zailagoa da.

2.3.-Zertarako bilatu hizkuntza aldaketa?

Bertoko hizkuntzan zerbitzua eskaini eta lan egin ahal izateko.

Hau, udal eta administrazio publikoko erakundeetan, legez ezarria dago; Plan estrategiko bietan kontuan izan beharko litzateke eta indarra egin benetan bete dadin legalitatea. Are gehiago, Lea-Artibaiko udalek eta Goi Nerbioiko

Zeberriok, batez ere euskeraz lan egiteko ezagutza mailetan sartzen dira. Beste kontu bat da langile eta arduradun politiko asko ez daudela horretarako gaituta, ez daudela horrekin ados (elebitasun kontzeptuaren indarra handia da gure administrazio publikoan) eta ez dutela premia hori sentitzen.

Gainontzeko erakundeetan hizkuntza aldaketak ekar ditzakeen abantailak euren neurrian kokatzen jakin behar dugu: Lea-Artibaiko tailer eta fabriketan, langilerik gehienek hizkuntza naturala da, euskeraz lan egiteak, erakundearen kalitatean jauzi inportantea suposa dezake eta Goi Nerbioin, euskeraren presentzia mundu ekonomikoan, baliagarria izan ahal da erakundearen aurpegia erakusteko; irudia euskerarekin lotuz, prestigio seinale modura aurkeztuz.

Denbora libreko erakundeak, elkarte eta kirol taldeetan, euskeraren erabilerak, bezero potentzialak hurbiltzeko balio behar du; eskolak euskeraren ezagutza duten pertsonak sortzen baditu, hortik kanporako erakundeek ere, horretara moldatzea ezinbestekoa dute berandu baino lehen.

2.4.-Nork egin behar du aldaketa hori?

Hasiera batean kanpoko teknikarien lana inportantea izango da, ohitura sortu eta irizpideak barneratu arte, erakundeez kanpoko teknikariek bideratu beharko dute prozesuaren zati garrantzitsua. Lea-Artibain, teknikarien lana askoz handiagoa izanda, beharko litzateke gainera baliabide gehiago honetarako; Goi Nerbioin ere, teknikarien dedikazioa urria da, baina uste dut gehiago beharko litzatekeela funtzionamendu aldaketa: maila komunitarioan gehiago lan egitea.

Apurka baina, gaur egun prozesua kanpotik bideratzen duten teknikariek, erakunde barruan txertatutako pertsonen utzi beharko diete hizkuntza aldaketa prozesuaren ardura tekniko, horretarako, formazioan ere pentsatu beharko da.

Erakunde barruko teknikarien abantailak ugariak dira: merkeagoak, erakundearen funtzionamendua ondo ezagutzen dutenak eta edozein arazori bat-batean erantzun ahal izango diena. Lea-Artibain, gaur egun kooperatiba batzuk, epe luzeko normalkuntza planetan sartuta daude, lan handia eginez, baina komeniko litzateke, batez ere krisi ekonomikoak datozenerako hizkuntza normalkuntza prozesua eten ez dadin eta urteetako lana pikutara joan ez dadin, kooperatiba horietako jendea formatzen hastea.

Kirol elkarte, kultur erakunde eta abarretan, oso txikiak izanda ere, gestioa lantzen duten pertsonengan, komeniko litzateke lan egitea: erakunde barruko kudeaketa eramaten duena izan dadila hizkuntza normalkuntzarako motorea. Plan estrategikoek hau kontuan izatea komeni da eta erakunde hauentzat edo hauekin antolatzen diren proiektuetan egitasmoetan, kontenplatzen hasia aurrera begirako funtzionamenduan hizkuntzaren bermatzea zelan lortu.

Guzti horretarako, erakundeetako barruko eragileen motibazioa landu beharko da, eta gorago esan bezala, komeni da motibazio hori praktikoa izatea, hau da lortu behar da, hizkuntza onura iturri bezala aurkeztea; honetan, Lea-Artibaiko enpresa eta erakundeetan, MCCko adibidea saldu ahal da (MCC euskeraren normalkuntzan sartzen bada, ona delako da).

Erakundearen barruan, motibazioa, erakunde horren buruan sustatu behar da, mailarik gorenean ahaleginez; hor daude erakundearen gidariak; etorkizuna aurreikusi eta erakunde horretara daramatenak.

Erakunde txikietan, hau errazagoa da, normalean pertsona bakarra izaten delako egunerokoaren arduraduna, pertsona horrengan euskerarenganako eta bere erabilerarako motibazioa landuz lortu ahal da normalkuntzarako pausu handi bat. Erakunde handietan, eta batez ere dirua lortzeko lan egiten dutenetan, liderrengana heltzea bilatu beharko da, nahiz eta beti ez den erraza izango, erresistentzia asko egongo da, eta orduan sindikatuen bitartekaritzarekin, langileen elkartasunarekin edo bestelako bideen bitartez, prozesua sustatu eta aurrera eramatea ahalbideratuko duten pertsonengan interesa sustatzea bilatu beharko da.

Administrazio publikoan, gauzak errazagoak dira, arduradun politiko batzuk kontzientzia dute euskeraren erabileraren inportantziaz, baina administrazio publikoetan liderrak normalean, udaleko idazkariak izaten dira; udaleko idazkariak, urte asko ematen ditu erakundeetan (politikoak baino gehiago normalean), egunero dago eta beraren inguruan mugitzen da erakundeak sortzen eta bideratzen duen lan guztia. Idazkariak "euskerarenganatu" ezkeror, erakunde horren hizkuntza normalkuntza prozesuak izugarritzko jauzia egina du.

2.4.1.-Plangintzaren beste sustatzaile batzuk: arduradun politikoak

Lea-Artibaiko kasuan, plangintzaren sustatzaileak, hirutan banatu ahal ditugu: eragile sozialak, plangintzaren aplikazioan eragin zuzena dutenak, Lea-Artibai EUSKARARIKO teknikariak, koordinazioa eta kudeaketaren arduradunak direnak eta udaletako arduradun politikoak, finantzen ardura eta planaren etorkizuna ziurtatzeko erantzukizuna dutenak.

Lehenengo talde bietaz, beste puntu batzuetan aritu izan gara, eta beharbada, arriskurik handiena, hirugarren taldetik etorri ahal da. Arduradun politikoen kontsensu ezak, 2003ko hauteskundeen ostean Plan Estrategikoa bertan behera geratzea ekarri ahal du. EAJ agintean dagoen lekuetan ez da planaren alde ezer egiten. Gaur egun hori gertatzen da Etxebarrian eta larriagoa dena Markinan. Datorren urtetik aurrera, Ondarroa zein Lekeition agintea hartzen badu eta jarrera berdina mantentzen bada, Planaren baliabide ekonomikoak ez dira ziurtatuko, eta planaren etorkizuna, euskera kontuetan beste askotan lez, militantismoan eta pertsonen borondatean oinarritu beharko da.

Ahal bait arinen konpondu beharko litzateke arazoa; arduradun politikoen erantzukizuna izan beharko luke adostasun batera heltzea eta urte jakin batzuetarako baliabideak ziurtatzea.

Baina jarraitutako metodologiak bere abantailak baditu:

- Teknikariek aholku zerbitzua dute eta horren bitartez, prestaketa jarraia izan ahal dute.
- Teknikariek, lana taldean egiten dute.

Goi Nerbioin, Plangintzaren bultzatzaileak, teknikaria eta arduradun politikoak dira; hemen bai, kontsensua badago arduradun politikoen aldetik eta planaren etorkizuna, ziurtatuta ikusten da, baina arazoak, interes faltatik etorri ahal dira; arduradun politikoengandik, planaren jarraipena eta bultzatzea, modu automata batean egiten da, (eskatu teknikariak-erantzun politikariak), kontsensua, akritikoa da eta susmoa da euskeraren sustatzea Goi Nerbioin, amaituko dela gaur egungo teknikariak alde egiten duenean.


Beste aldetik planaren atzean ez dago herritarren ordezkariarik; ez dago euskalgintza antolaturik eta kultur talderik gehienak, euskera elementu folkloriko bezala ikusten dute.

Teknikariari dagokionez, ez da prestaketa jarraia ziurtatzen, baliabide informatikoen eguneratzea ez da ezagutzen eta talde lana eta aholkularitzarik ez dago.


2.5.-Zelan lortu hizkuntza normalkuntza premiak erakunde barruan txertatzea?

Planifikaziorako eredu sistemikoaren oinarritzko eredua, hurrengoa da:

Modu eskematikoan eta J.Inazio Markoren eredua kopiatuz: helburu bat lortzeko asmoarekin, eragile batzuk, zerbait planifikatzen dute. Plangintza hau, beti egongo da estuki lotua hartzaile, aplikatzen den inguru fisiko-kultural-politikoari eta aplikaziorako denborari. Eta guzti horrek, sistema bat osatuko du, beste sistema nagusiago baten parte dena eta beste sistema batzuk bere barruan hartzen dituena.




Kontseiluaren euskera plangintzak ostera, funtzionamendurako beste eredu hau luke:



Eragile sozialek plangintza bat martxan jartzen dute euren hizkuntza egoera normalizatzen joateko asmoz (bakoitzak, bere baldintza zehatzen arabera). Guzti horrek, jarraipena izaten du, eta aholkularitza zerbitzuak baliatuz eta

teknikarien koordinazioa eta laguntzarekin, eragileekin harremanak izaten dira. Horren arabera, beste pausu bat emango da ala lehen planteatutakoa berregokitu.

EBPNren arabera diseinatu ahal dugun funtzionamendurako eskema hurrengoa izan ahal da



Teknikariek jartzen dituzte helburuak eta plangintza egiten dute hartzaile batzuentzat. Plangintza, sektorearen arabera da. Ondoren, teknikariek, hartzaileengandik jasotakoaren arabera, jarraipena eta berregokitzeak egiten dituzte.

Bai Lea-Artibaiko Plan estrategikoak eta baita Goi Nerbioiko plangintzak ere ikuspegi sistemikotik ikusita, berezitasunak dituzte:

2.5.1.-Norentzat diseinatzen da plangintza?

Lea-Artibaiko kasuan, hartzaileak, eragile sozialak eurak dira; horrek, euskeraren gaia sozializatu egiten du, hasieratik amaierara, prozesuaren kontrola, helburuen definizioa eta betetzea zein guztiaren jarraipena, zuzenean inplikaturakoaren eskuetan lagatzen du. Horrekin gauza asko lortzen direla ezin ukatu:

- Denboran aurrezten da
- Eragile sozialaren harreman espazio osoan eragiten da era berean.
- Etorkizunean aldaketak egin nahi dituztenean, erakundearen antolaketa eta eraldaketarako metodologian prestatuagoa egongo da.
- Hizkuntza irizpideak bizitzako edozein arlotara zabaltzeko “eskola” ona da.
- Euskera gastuak sozializatzeko balio du, eragile sozialak berak hartzen badu bere aldaketen erantzukizuna, gastuen erantzukizuna ere neurri handi batean bere gain jautzi da.

Lea-Artibaiko kasuan eta hartzaileak kontuak hartuta, alderik okerrenea nire ustez, planean eskualdeko erakunderik handienetakoak sartu ez izaa da.

Goi Nerbioiko plangintzan, hartzaileak hirutan banatzen dira: administrazioko langileak, ume eta gazteak (eta era ez-zuzenean gurasoak) eta merkataritza eta zerbitzu sektoreetako langile eta jabeak.

Lehentasunezko esparruok dituzten arazo metodologikoak, hurrengoak dira:

- Administrazioaren kasuan, eskaria arduradun politikoengandik sortu eta sustatu izan da, langileei galdetu barik. Horrek ez du ekarri kontrako jarrerarik, baina pasibotasuna bai; beste alde batetik, arduradun politikoak eurak adibidea ez izatean euskeraren erabileran (salbuespenak salbu), langileengan ere eragina du.
- Ume eta gazteengan eragin ahal izateko arazorik handienak, hurrengoak dira:
 - Umeek eskolatik kanpora euskera gutxi entzuten dutenean, nabaritu egiten da euren jardunean. Horrez gain, nagusi gazteen praktikak, gaztelera indartzen du; esan ahal da, etxean eta eskolan ikasitako teoriak baino indar handiagoa daukala egunero kaleetan, helduei entzuten dietena.
 - Gazteei eta umeengan eragiteko beste arazo handi bat, plangintzaren aplikazio eremua eta gazte eta umeen (DBHtik aurrera) bizi-eremua bat etortzea da: gazteak, aldendu eta sakabanatu egiten dira, beste bizi-ohitura batzuk hartzen dituzte eta plangintzak ez du eraginik askotan.
- Merkataritza eta hirugarren sektorean eragiteko arazorik handiena, urteetako harremanek, hizkuntza ohitura errotuak sortu dituela da eta horiek aldatzeko, bezero eta saltzaile arteko erabaki adostua izan beharko lukeela. Bitartean, hizkuntza paisaia egokitu eta beste zenbait gauza egin ahal izango da baina hizkuntza ohituren aldaketa ez da erraza gertatzen; are gutxiago, goi Nerbioi bezalako inguru ez-turistiko batean, non denak elkar ezagutzen duten eta harremanak gehien bat gazteleraz finkatuta dauden.
- Horrez gain, merkataritzan badaude beste arazo batzuk ere: eskari eza, frankizien ugaritzea, saltzaileen zahartzea, hizkuntzaren prestigio urria negozioetarako.....

2.5.2.-Zelan jakinarazi: komunikazioa

Lea-Artibaiko planari buruzko ezagutza, ez da handiegia baina eragileei banan bana telefonoz deitzeak, orri informatiboak atera izanak, Markinako plazan egindako ekitaldi publikoak, komunikazioa egon dela adierazten du.

Dena den, uste dut proiektuak aurreikusten zuen komunikazio atala ez dela egoki martxan jarri; beste aldetik, herrietako euskaletzaren lehentasunetan ez da sartu jendeari Plan Estrategikoaren berri ematea eta beste aldetik, eragile sozialei hizkuntza “saldu” beharrak, marketing estrategiak eguneratu beharra dakarrela uste dut.

Goi Nerbioiren kasuan, komunikazio falta oraindik handiagoa da; eragindako esparruetatik kanpora, euskera sustatzeko ahaleginen informazio eza ia erabatekoa da. Plana ezagutzen dute arduradun politikoak, eskoletako irakasleak, merkataritza eta gazte batzuk eta besteren batek.

Herritarren artean informazioa zabaltzen da egitasmo puntualei buruz: sentsibilizazio kanpainak, merkataritzan eskaria sustatzeko, administrazioan eskaria sustatzeko, gazteentzako erabilera tailerrak.....baina jendeak ez du ikusten guzti hori era antolatuta batean, plangintza batetik sortutakoa, helburu eta lehentasunak dituen.

Are gehiago, informazio eza handia da, hizkuntzaren normalkuntza bultzatzea, zenbait kasutan, hizkuntza inposaketarekin lotzen da, euskerazko elebakartasuna eta erdalduen zapalketa etniko-politikoak dakar euskeraren statusa indartzeak, eta ondorioz, elebitasun teorikoa aldarrikatzen dutenek ere gaztelararen elebakartasun praktikoa onartzen dute.

2.5.3.- Ze emaitza lortu nahi da?

Helburuen formulazioa, Plangintza bietan antzekoa izanda, Lea-Artibaiko Plan Estrategikoan, harreman sare osoan eragin nahi da eta horrek ematen du hasiera baten serioagoa dela.

Beste aldetik, jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemari dagokionez, bi kontu:

- Lea-Artibain, jarraipena, Plan Estrategikoaren teknikariek egingo dute eta balorazioan, kanpoko agenteek ere parte hartzen dute.
- Hala ere, eragileen aldetik jarraipena egitea ere indartu beharko litzateke; bakoitzak bere lorpenak neurtu eta baloratzeko sistemaren bat proposatzea ondo legoke.

Goi Nerbioiko plangintzan, jarraipena eta balorazioa teknikariaren eskuetan geratzen da normalean. Jarraipen batzordeek ia funtzionatzen ez dutenez, emaitzak ez zaizkie hartzaileei heltzen eta azken batean plangintza normatiboen arazoak erakusten ditu:

- Prozesua goitik gidatua izatea.
- Interesatuei emaitzen berri ez ematea.
- Teknikarien eskuetan ardura, zeregin eta “pribilejio” gehiegi jartzea

Laugarren zatia: PLANGINTZEN APLIKAZIOA

Aurreko orrietan, plangintza eta metodologia zehatz biren arteko konparaketa egiten aritu izan gara, baina azken helburua, lan honen sarreran egiten zen galderari erantzutea da:

"..... Honen aurrean beti sortzen den galdera da zertarako horrenbeste bide ezberdin, helburua berdina bada; zein dago zuzen, ala guztiak balio dute errealitate guztietan aplikatzeko? Horrela ez bada, ze baldintza eskatzen du metodologia bakoitzak aplikagarria izateko."

Konparaketako alde ezberdinak aztertuta, nire iritzia da:

1. Plangintzak arrakastarako aukera gehiago izango dutela sistema itxietan eta herritarren kontzientzia maila altuagoa duten lekuetan.

1.1.-Lea Artibaiko eskualdea osatzen duten herrien bizitza soziala, kulturala, ekonomikoa eta laborala eskualdean bertan ematen da neurri handi batean, beraz esan daiteke bertan aplikatzen den plangintza motak arrakastarako aukera gehiago duela, baina ahaztu gabe sistema osoan lan egin behar duela era berean eta denbora luzez.

1.2.-Ondorioz, Lea Artibain aplikagarriagoak izango dira sistema osoan eragin asmoa duten plangintza eta metodologiak.

2. Bizi baldintzak komunitate mailan eragitea ahalbidetzen ez dutenean, maila sistemikoz jaitsi eta sektorean lan egin beharko da. Ondorioz, kontuan izanda Goi Nerbioiko pertsonen egunerokotasuna gune geografiko zabalera hedatzen dela, herrian edo komunitatean pisua duten sektoreak aukeratu eta eragin beharko da.

Eta sektoreka lan egin behar denean, lehentasunak jarri beharko dira irizpide hauen arabera:

- ❖ Lehentasuna izango dute komunitatearen etorkizunean eragina izango duten sektoreak; alde honetatik, ume eta gazteen hezkuntza sisteman plangintzak diseinatzea eta aurrera eramatea garrantzitsua da, etorkizunean komunitate maila osoko sektoreetako erdigunea osotuko dutelako pertsona horiek.
- ❖ Komunitatean prestigioa duten sektoreetan eragitea inportantea izango da, horrek komunitate horretan hizkuntzari prestigioa emango diolako. Gure inkestatxoan ikusitakoaren arabera, prestigioa dute lanbide liberaletan aritzen diren pertsonak, erantzukizuna dutenak, elkarteetako arduradunak, karguetarako aukeratuak izan direnak eta abar. Ondoriozta daiteke, udaletan, kutxa eta bankuetan, aseguru etxeetan, enpresa txikietan euskera planak garatuz, euskerari, prestigioa ematen zaiola eta etorkizunean komunitate eta ekosistema mailako plangintza sistemikoek arrakastarako aukera gehiago izango dutela

BIBLIOGRAFIA

- SANCHEZ CARRION, J.M (1987). Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas. Donostia: Elkar
- GARCIA FERNANDEZ, I. (2001) Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: identitate etnolinguistikoaren garrantzia. Doktorego tesia. Bilbo UPV/EHU
- KONTSEILUA (1998) Euskararen unibertsoa jardunaldiak. Donostia. Kontseilua.
- KONTSEILUA (1998) Euskararen Normalizaziorako Plangintza estrategikoa prestatzeko eskuliburua. Donostia. Kontseilua.
- FISHMAN, J.A. (1991) Reversing Language Shift (RLS) Clevedon: multilingual Matters
- EUSKO JAURLARITZA (1999) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- EUSKO JAURLARITZA (1991) Euskararen Normalizazioari buruzko udal jardunaldiak Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- EUSKO JAURLARITZA (1995) I. Soziolinguistikako inkesta. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- EKB. (1998). Euskararen kale erabilpena Euskal Herrian. BAT 28
- AGIRREBALTZATEGI, P. (1995) Euskararen aldeko gizarte mugimendua: zeregina eta artikulazioa BAT 16 (17-30)
- ARRUTI, I. (1995) Euskara elkarteak: jatorria eta norabidea BAT 16 (31-47)
- EZKERRA, M eta FERNANDEZ I. (1995) Euskararen gizarte mugimendua eta euskararen normalkuntza BAT 16 (49-55)
- ARREGI, M eta ETXALAR, E. (1995) Euskararen aldeko mugimendu sozialaren zeregina eta artikulazioa etorkizunean: edukinak eta egiturak BAT 16 (57-66)
- AGOTE, I. (1995) Euskararen aldeko mugimendu soziala. BAT 16 (83-88)
- E.H.A.A., (1998) 151 zk, 1998/8/11
- MARKO, J.I (2001) VII Congreso Español de Sociología – Salamanca – 2001/9/20-22 . Fotokopiak

1.-Eranskina

GALDETEGIAK

Lanaren Lehen zatian, 4 eta 5 puntuetako datuak jaso ahal izateko, galdetegiak prestatu eta erabili ziren. Lehen zatiko galdetegi hauek, herriko eguneroko funtzionamendua ezagutzen duten pertsonen iritzia jakitera zuzenduta zeuden.

Horrez gain, Bigarren zatiaren 1.8 eta 2.7 ataletan ere, euskera plangintzen aplikazioan diharduten teknikarien iritzi pertsonala jakiteko asmoz, beste galdetegi txiki bat pasatu zen

LEHEN ZATIA.-Herrian diharduten talde eta pertsonen egindako galderak

Galdetegian parte hartu dutenak

Galdetegietan, 4. Puntuan (joera politiko nagusiak) banaketa egin da; hau da:

Erantzuna ematen dutenen talde nagusi bi ditugu: Lehenengoari, A taldea deituko diogu eta bigarrenari B taldea

"A" taldea

- Ø Aspalde euskera munduan aritutakoak
- Ø Eskolako irakasleak.
- Ø Udaltzainak.
- Ø Kafetegietako langileak.
- Ø Alderdi politikoaren barruan, euskerarekin harremana duten pertsonak.
- Ø Udaletako euskera zerbitzuak

"B" taldea

- Ø Sindikatuak
- Ø Merkataritza elkarteak.
- Ø Aisialdi talde batekoa eta beste bat mendizale elkarte batekoa
- Ø Herrietan, kultur edo kirol taldeak

"A" taldearen erantzunetatik, 4.2. puntuko erantzunak jaso nahi izan ditugu (herriko giro subjektiboa) titulupean doazenak. "A" taldeko pertsonen erantzuteko eskatu zaien, indibiduo edo banako bezala erantzuteko eskatu zaie; zer pentsatzen duten eurak.

"B" taldeko pertsonengandik 4.3 puntuan agertzen diren erantzunak jaso izan dira; kasu hauetan, talde bezala zein ikuspegi duten edo taldeko ikuspegiari gehien hurbildu ahal zaiona eskatzen zen.

Azkenez, herritarren izeneko puntuak (5a), "A" eta "B" taldekoei egindako galderetatik aterata dira. Esan behar da hemen ikuspegia erabat norbanakoarena dela; hau da eskatzen zitzaiena da bakoitzaren iritzia pertsonala galderen gainean

Galdetegiaren ezaugarriak

Egia esan, galdetegia baino gehiago, galdetegietaz hitz egin behar genuke, erantzunak sailkatzeko erabili dugun irizpidearen arabera.

Horrez gain, galdera zabalak izan dira, erantzulearen iritzia jakiteko egokiak direlako, erantzun interesgarriak zabaltzen dituzten aukeretan arakatzen

jarraitzeko modukoak eta erantzuna ematen duenaren iritzia ezagutzeko egokiagoak. Ondorioz, gauzak sinpletzeko, galdetegiaren hurrengo eskema baliagarria izan dakiguke:

Nori	galdera		erantzuna
"A" taldea	Euskeraren inguruan	-Zelan ikusten duzu euskera zure herrian, herritarrak behar den beste egiten al dute euskeraren alde? -Uste duzu erakunde publikoek (udalak, EJ, BFA) behar den beste egiten dutela euskera sustatzeko? -Zelan ikusten duzu euskeraren etorkizuna? Hobera goazela uste al duzu? Orain urte batzuetako egoerarekin konparatuz, bete al da zuk itxaroten zenuena?	4.2.- puntuak jasota agertzen dira.
	Giro politikoa	-Ikusten duzu herriko giro politikoa aldatu egin dela/berdin jarraitzen duela/ tentsio handiagoa dagoela.....zertan nabari da? -Zure herrian (udalean eta gainontzeko hauteskundeetan) aldaketa politikoa emango dela uste al duzu, zergatik uste duzu hori?*	
"B" taldea	-Taldearen/elkartearen funtzionamenduan, zenbat euskera erabiltzen da?, zertan?. -Gure erakundearen eguneroko funtzionamenduan, euskeraren presentzia ezinbestekoa da-askotan agertzen da-erabiltzen dugu-ez dugu askorik erabiltzen-ez da behar (bat aukeratzeko eskatzen zaie 5 horietatik eta ondoren erantzuna komentatzeko). -Euskera gehiago erabiltzeko pausuak emateko gogorik/asmorik ba al duzue? Egotekotan, zein da arazoa/oztopoa?		4.3 puntuak jasota agertzen dira hemengo erantzunen laburpena

* Galdetegia, 2002ko, maiatzaren amaieran eta ekainaren hasieran egin da, momentu horretan, Batasunaren ilegalizazioa zetorrela jakina bazen ere, gauzatu barik zegoen.

"A" eta "B" taldeakoa k eta banako bezala erantzuna	-Zure herrian gazteak, batzen dira, noiz batzen dira, nortzuk, zer egiteko? -gazteak, nondik ibiltzen dira(gune fisikoak) -Kanpora joaten badira, nora? -Talde antolatuak (kirol taldeak, kultur taldeak, gaztetxeak, talde politikoak...) gazteak batzeko erakundeak al dira zuren herrian? -Esan azken urteetan ekitaldiak antolatzen dituzten taldeak eta udaleko egituretatik aparte daudenak. -Nortzuk osatzen dute?, non batzen dira? Zerekin lotuko zenituzke? (Gobernuz kanpoko Erakundeak, eliza, alderdi politikoak, euskera, musika...) -Talde/elkarte hauek esaten dutenak, badu indarrik/pisurik herrian? zenbat?, nork gehien? Norengan du indarra bakoitzak. -Udalaren funtzionamenduan, ze talde/elkartek du pisurik gehien? Handia da pisu hori ala ez du ia eraginik? Zein gaitan? -Herriko pertsonen artean, zeintzuk dira ondo ikusitakoak/miresmena sortzen dutenak/eredu moduan erabiltzen direnak? Zergatik esango zenuke hori, ze ezaugarri dituzte pertsona horiek miresmena sortzeko?	5. puntuak agertzen dira erantzunak
--	---	--

BIGARREN ZATIA.-Plangintzen aplikazioan dabiltzan teknikariei egindako galdera

Teknikarioi egindako galderak asko izan baziren ere, hemen agertzen direnak, ezaugarri pertsonaletan egiten dute indarra; hau da bakoitzaren ezaugarri eta baldintzek zelan eragiten duten besteen portaera eta jarreretan, edo behintzat horren pertzepzioa.

-Eragin nahi den esparru/jende/eragileengan, zelan eragiten du eta zergatik teknikariaren hurrengo ezaugarriak:

- ❖ Ezaguna izatea/ez izatea
- ❖ Adinak
- ❖ Ezaugarri fisikoak
- ❖ Sexuak
- ❖ Erakunde publikoen izenean joateak
- ❖ Kontseiluaren izenean joateak

Esan bezala, erantzunak, Bigarren zatiaren 1.8 eta 2.7 puntuetan agertzen dira.